




ELKARRIZKETA: JOSEBA UGALDE, INGURUGIROKO LEHENDAKARIA

Arrasate

P R E S S

1999ko
urriak 29
469. zenb.



Santuak eta hildakoak

Azaroak 1, Domu Santu eguna


IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • KULTURA ELKARRIZKETA: KOLDO LOSADA

EUREN IKUSPUNTUTIK: LOREA ARANBURU • KIROL GAIA: KENCI-ARRASATE NESKAK



*Zeramika erakusketa
eta salmenta*

Uribarri etorbidea, 22 - B • Tel. / faxa: 943 79 81 80
ARRASATE



Mugikorraz hitz egitea garesti?



Airtel Club-ekin,
12 pta/min.
15 orduz, egunero.

ALTA DOAN AIRTEL CLUB-EN SARTZEAN*

*Telefonia mugikorrari beldurrik ez. Orain, Airtel Club-en Arratsaldez Planarekin telefono finko batera dei egin ahal izango duzu 17:00etatik 06:00etara 12 pta/min.-ko kostuarekin**. Baita asteburu osoan ere. Eta gogoan izan, Airtel Club da mezuak erantzungailuan doan jasotzeko aukera ematen dizun bakarra. Golez Planari buruzko argibideak ère eska itzazu. Badakizu. Hitz egin nahi baduzu, ez beldurrik izan. Eman izena Klubean.*

*ESKANTZA HONEK 99/914TK/9910/17RA BITARTEAN EGINDAKO ALTETARAKO BALIO DU. ZEHARKAKO ZERGAZ EZ DAUDE BARRNE. DEIA EZARTZEKO KOSTUA 20 PZTA. EMANDAKO ZERBITZUAK BALDINTZA OROKORREKIN ARIABERAKOAK DIRA.

Terminalen salneurriagatik ez kezkatu, argibidetarako:

AIRTEL ARRASATE
Maalako Errabala, 33
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 50 32



Nazionalismoa

Emaidazue baimena nazionalismo hitzaren esanahietan oinarritzakoa aukeratzeko.

Nazionalismoaren oinarrian gizakia multzo baten partaide izatera eramaten duen sentimendua dago. Esanahi honen arabera, Euskal Herrian nazionalismo asko dago. Iparraldean, frantziarra eta euskalduna gutxienez. Eta Hegoaldean, espainola, euskalduna, nafarra, arabarra, gipuzkoarra, eta bizkaitarra, txikiagoak kontuan hartu gabe.

Seguruenik gutariko bakoitzaren-gan sentimendu horietako bat baino gehiago bizi da. Gure atxikimendu horietan zein den nagusi, horrek definitzen gaitu.

Nazionalismoak ez du berez arazorik sortzen eta batzuetan igarri ere ez da



Mikel Irizar

egiten. Nazionalismo batek beste bat mendean hartu nahi edo hartzen duenean agertzen dira arazoak. Espainarrak eta frantziarrak euskalduna mendean dutelako dago dagoen arazoa, eta Pirinioetako muga. Nafar nazionalismoa badelako eta espainolak mendean hartu duelako dago ekialdeko muga. Araba bera ez dabil egoera horretatik

oso aparte.

Bestalde, Eusko Jaurlaritza abiatu zenean, Lurralde Historikoen legearen bidez hauen funtzio batzuk bereganatu nahi izan zituelako apurtu zen EAJ eta sortu zen EA. Egun, burujabetza fiskala aldundietan dago, eta ez Jaurlaritzan.

Horregatik, lelokeria bada Madrildik esatea nazionalismo bakarra euskaldunena dela, ez da askoz jantziagoa arazoan bi nazionalismo bakarrik ikustea,

bertakoena eta kanpokoena. Hobe genuke, euskal gizartea imajinatu barik, den bezala hartzea, eta bere multzoen arteko borroka emankor egingo duten arauak ezartzea. Adibidez:

Gizaki bakoitzak bere multzoa askatasunez aukeratzeko eskubidea. Alferrik erabiliko dira historia edo printzipioak, gizaki bakoitza bere sentimenduak eramango du multzo bat edo bestera, eta borondateak batuz egingo dira herrialde eta nazioak.

Giza multzo bakoitzak besteekiko loturak aukeratzeko eskubidea. Alferrik ezarriko ditu mugak multzo nagusiak, menpekoa mugi ez dadin. Askatasunez onartutako loturak bakarrik dira iraunkorrak.

Egoera aldatzeko aukera ziurtatuko duen tresna. Nagusi den multzoari komeni zaionean aldatzeko aukera galarazten bada, menpekoari ez zaio beste irtenbiderik uzten arauz kanpoko borroka baino.

Hortik aurrera, aldi bakoitzean borondate gehien batzen duenak agin dezala. Gauzak horrela ikusita, ez litzateke errazago gatazkak bideratzea? ■

“Askatasunez onartutako loturak bakarrik dira iraunkorrak”

“Beharrezkoa litzateke oinezkoei lehentasuna ematea eta autoei oztopoak jartzea”

Joseba Ugalde



ARCO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjoo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arrochaba. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa:** Maite Urriolabelia (Tel.: 943 71 23 90). **Diselnuak:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemakileak:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankeo kontzentratua.** **Inprimategia:** Ger-tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitzeko esanena eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: A. Inñoredoren margolanaren argazki muntaketa. Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

2.489.405

pta jaso ditu Arrasate Pressek Jaurlaritzatik

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak banatu ditu aurtengo diru laguntzak euskarazko prentsa idatzian. *Arrasate Pressek* iaz baino 514.172 pta gehiago jaso ditu, baina orain hamar urte baino 510.595 pta gutxiago.

ITURRI ONETIK

Arrasate Ikastola Europagintzan

Arrasate Ikastolako talde batek, San Viatorrekoak hain zuzen, parte hartuko du hiru urtean zehar Europako Bata-sunak, Socrates diru laguntzen bidez, babesten duen proiektu batean.

Txekia, Ingalaterra, Austria, Italia eta Errumaniako bost eskolarekin batera egingo du lan Arrasate Ikastolak. Pragako eskolak bateratuko ditu lanak.

Lehen urtean *Atzo* izena duen bideo bat egingo dute arrasatearrek. Lan horretan lehenengo gazteak gaur egungoekin alderatuko dituzte, San Viatorreko 17-18 urte bitarteko hogeitabat gazteak. Otsailerako bilketa lana eginda behar-ko dute izan. Ekainerako, berriz, bideoa amaituta. Aste honetan Luis Azpiazu eta proiektuan parte hartuko duten beste irakasle batzuk Pragan izan dira, lanak zehazten.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 29

- Amezua, Santa Marina

Larunbata, 30

- Zabala, Zarugalde

Igandea, 31

- Ruiz, Maalako Errabala

Astelehena, 1

- Morales, San Andres

Asteartea, 2

- Azkoaga, Ferrerías

Asteazkena, 3

- Azkoaga, Iturriotz

Osteguna, 4

- Korkuera, Musakola

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igoalatorioa 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara 943 76 55 76

DYA

Antzuola 943 78 71 57

Anbulatorioak

Arrasate (Larnialdiak) 943 03 53 00
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
• Fax zenbakia: 943 03 05 14
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako anbulantziak 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia 943 79 58 77

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATETARI KEXUA

O hiko den legez, Euskal Herriko Unibertsitatearen kontrako beste eskutitz bat da hau. Beste bat diot, asko baitaude hortik zehar.

Matrikula egiterakoan ikasgaii begira nembilela, irakasleen izenak irakurtzen hasi nintzen (nor bait ezagutuz gero, badakidalako zer nolako ikasgaia izango dudana). Bazen bat, ostiraletakoa hain zuzen, "profesor a contratar" jartzen zuena eta, itxuraz, oraindik ez dute kontratatu.

Uste izango duzuenek, ikasgai hori ordaindua izan arren, eskoletara ez da irakaslerik azaltzen eta ostiralak libre izan arren, ez zait bidezkoa iruditzen ordaindurikoa ez errespetatzea. Eskaintzen dutena bete dezatela!

EHUko kazetaritzako ikasle bat.

Gutunen araudia

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sor ez dadin, araudi berria ezarri dugu, gutunetako sailean.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu, nahitanahiez:

- Egilearen izenaz argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hor-tik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.
- Anonimo, gaitzizenez edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako orde-nean kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarririk ez da argitaratuko.
- Egilea bera dela egiaztatzen, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du. Telefono zenbakia nahikoa da horretarako.

Telefono berriak

Arrasate Komunikabideak elkarteak telefono berriak ditu. Hauek dituzue zenbaki berriak:

- Arrasate Press 943 71 25 11
- ATB 943 71 23 93
- Administrazioa 943 71 23 90
- Publizitatea 943 71 23 91

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Zer deritzozu Realakak Clemente fitxatu izanari?

Real Sociedadek Bern Krauss entrenatzailea kendu eta Clemente hartu du.



Jose Mari Letona
(55 urte)
Langilea

Niri berdin zait. Jende asko horren kontra dagoela badakit, baina niri ez zait inporta. Ez naiz futbolzalea.



Asier Apaolaza
(27 urte)
Langilea

Ondo iruditzen zait. Entrenatzailea euskalduna bada, hobeto. Hala ere, ez dut uste Kraussek lan ona egin duenik.



Juan Mari Aranburuzabala
(55 urte)
Langilea

Ondo dago erabakia. Entrenatzaile berria euskalduna da eta hori behar da.



Constancio Hernandez
(63 urte)
Erretiratua

Erabaki ona da. Clemente jatorra da eta uste dut Erreala gora eramango duela.



Janire Jimenez
(11 urte)
Ikaslea

Lehenago entrenatzailea gehiago gustatzen zait. Nire ustez ondo entrenatzen zuen Erreala.



Nekane Atxa
(13 urte)
Ikaslea

Hobe horrela. Clemente euskalduna da.



Amaia Rienda
(16 urte)
Ikaslea

Errealekoa naiz, baina berdin zait zein entrenatzaile duen. Hala ere, ez dut uste dena entrenatzailearen errua denik.



Sara Prol
(17 urte)
Ikaslea

Clementek on egingo dio taldeari. Ez dio axola Espainiako taldean aritu izana eta bizkaitarra izatea.

M
Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

beatriz
oinetakoak
eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

USTEAK USTE

Hitz ederrak, sosak urri

Belarriak berotze-raino entzun dugu, behin eta berrero, euskarazko herri prentsa estrategikoa dela, garrantzi handikoa, alegia.

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak banatzeko orduan, ostera, gauzak gutxi aldatu dira. 1990ean Kultura Sailak 28 milioi eta erdi pasatxoko partida sortu zuen euskarazko herri prentsari laguntzeko. Diru hori bederatziko herri aldizkariren artean banatu zen. Hamar urte geroago, 35 milioi eta erdi pasatxo banatu ditu, 27 aldizkariren artean. Hori al da sektore estrategiko batek merezi duen tratamendua?

Hitz ponpoxoen gaintetik, argi dago Eusko Jaurlaritzak ez diola behar adina laguntzen euskarazko herri prentsari, hamar urtean euskararentzat beste inork baino irakurle gehiago irabazi dituen fenomenoari.

Horrez gain, ona litzateke diruok zein irizpideren arabera banatzen dituen azaltzea. Gu behintzat ezin asmatu gabiltza.

Joxe Aranzabal



Gizentasunari aurre

* Lorea Aranburu

Gizentasunari aurre egitea minbiziari aurre egitea baino zailagoa da” izenburuarekin artikulua bat argitaratu zen egunkari batean duela zenbait aste. Horren harira, hainbat gaixok galdegin zidan: “zuk, mediku nutrizionista zarenez, zein iritzi duzu horren inguruan? Benetan hain zaila da gizentasunari aurre egitea?” Esaerak dioen bezala, bizitza honetan ezer ez da ez beltza, ez zuria; begiratzen duzun kristalaren kolorekoa baizik.

Auzi hau hobeto ulertzeko, azken urteotan dietetikaren arloak izan duen garapenera jo beharra dago. Lehenengo argaltzeko mirarizko pilulekin egindako dietak jarri ziren boladan. Era guztiatiko dietak azaldu ziren (Pomeloaren dieta, Atkinson dieta, dieta disoziatua...) ondorio zirraragarri eta erabatekoen bila. Kontua zen ahalik eta kilo kopuru handiena denbora tarterik laburrenean galtzea.

Gaur egun elikaduraren arloan iraultza berri baten

atarian gaude. Gero eta argitasun handiagoa hartzen ari da, gainera, osasunaren esparruan. Kontzeptu berriak sartu dira: dieta orekatua, elikadura heziketa eta elikatze-ko ohiturak aldatzea.

Gizentasunari aurre egiteko helburua “jaten ikastea” da eta ez soilik pisua jaistea; eustea ere bai. Erritmorik egokiena astean batezbeste kilo bat eta kilo eta erdi jaistea litzateke. Nahikoa litzateke astean 200-500 gr. galtzea, organismoa hobeto moldatzen baita aldaketa horietara. Gainera, pisua egonkortu egiten da, eta gantz masaren bizkar, giharreen

“Gizentasunari aurre egiteko helburua ‘jaten ikastea’ da eta ez soilik pisua jaistea”

masa galtzeko arriskua gutxitu. Beste hitz batzuekin esanda, erritmo horrek pertsona bakoitzaren arabera, jarraia eta estutasunik edo antsietaterik sortzen ez duena izan behar du.

Bestetik, Gorputz Masaren Indizea da Elikadura arloan gizentasuna neurtzeko erabiltzen den parametroa. Lau maila daude lehenengotik hasita, gainpisuaren parekoa, laugarren mailaraino edo gizentasun erigarriraino. Azken honek hilkortasun arrisku handiagoa du. Kontua ez da maila handienetik txikienera bat-batean pasatzea, gizentasun maila hobetzea baizik.

Pisuaren ehuneko handi bat gutxituz, gure osasuna hobetu egiten da neurri handi batean. Kolesterola, azido urikoa, diabetesa eta enzima hepatikoen maila hobetu egiten dira odol analitikan, eta arrisku kardiobaskularra eta gihar-hezurduraren prozesu mingarriak gutxitu egiten dira... Eta gainera, gure gorputzaren irudia ere hobetu egiten da.

Azken batean, kontua ez da gizentasuna sendatzea, joera kronikoa duen gaitza baita jeneralean. Gizentasun maila jaistean datza, eta horrekin batera, osasuna hobetzean. Handinahi gutxiagoko helburu erre-alagoak jar ditzagun soberako kilo horien aurka borroka egiteko.

*Mediku nutrizionista

LASER DEPILAZIOA

Itaca Zentru Mediku eta Estetikoa

AZKARRA, BEHIN BETIKOA, MINIK GABE

Kontsulta eta aurrekontua konpromisorik gabe.

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA

Arrasate

LANAK

OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

SANTA TERESAN

Santa Teresa eta Hondarribia kaleen artean saneamentu lanek segitzen dute.

ZALDISPEN


Oinezkoen pasabideko lanak.

OBENERREKAN

Gernika kaleko oinezkoen pasabidea berritzeko lanak.

MARKULETEN


Urbanizazio lanak.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro


Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua




OSTIRALA 22

Lainotua egongo da eguna eta euri arriskua izango dugu. Tenperatura ez da aldatuko eta haizeak hegoalde-tik joko du, ahul.



LARUNBATA 23

Euria egin dezake tarteka, jeneralean eguna hodeitsua izango da eta. Tenperaturak behera egin dezake.



IGANDEA 24

Tarteka lainoak agertuko dira eta tenperatura igo egingo da piskabat. Haizea aldatkorra ahula izango da.

Ilargia



Ilbehera

Hilaren 31n, igandean, ilbehera izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean
19:00 (elebiduna)
Igandean:
09:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean
19:00 (elebiduna)
Igandean:
09:00 (euskaraz)
10:00 (erdaraz)
11:00 meza nagusia (euskaraz).
12:30 (erdaraz)
19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean
19:00 (elebiduna)
Igandean:
11:30 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

San Andres


Ostiralean
18:30 (Otoitz ordua)
Larunbatean
18:30 (Bezpera abestiak)
19:00 (elebiduna)
Igandean
10:00 (erdaraz)
11:00 (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean
19:00 (elebiduna)
Igandean
10:30 (erdaraz)
11:30 eta San Isidron (euskaraz)
12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%62,1



Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- Rafa Uribarren legebiltzarkide aukeratu zuten.
- Arrasateko eta Bergarako udalak auzitara joan ziren botikarien kontra.
- Ikerlanen Energia Saila Miñaora eraman zuten.
- Jose Mari Velez de Mendizabalek, "Samurai berria" espioitza eleberria idatzi zuen.

29

ostirala

■ ZINEA

El amor apesta, Alai zine-
man, 19:00etan eta 22:00etan.

■ UDAZKEN KULTURA

Bergarako Udalak antola-
tuta, blues kontzertua eskai-
niko dute *Red House* taldeak
(Caiga Quien Caiga telebista
programako bandak) eta *Ben-
jamin Tehoval* bakarlariak
("orkestra gizona" deituak)
gartzela zaharrear. Emanaldia
22:00etan izango da. Sarrera
700 pta (500 pta, 26 urtetik
beherakoentzat).

30

larunbata

■ ZINEA

Tarzan, 17:00etan eta *Eyes
wide shut*, 19:00etan eta
22:00etan, Alai zine-
man.

■ ELGEAREN AURKA

Ekologista eta mendi tal-
deek deituta, Elgeako haize
zentralaren aurkako mendi
ibilaldia aterako da 09:30ean,
Elgeara. Ibilaldia Araotzen
hasiko da.

■ ANDALUZIA EGUNA

Sueños de Andalucía dan-
tza taldea eta *Al Andalus* abes-
batza izango dira, besteak bes-
te, Bergaran antolatu duten
Andaluzia egunean. Ekitaldia
San Martin plazan izango da,
goizean zehar.

■ BARAZKIZALEEN
SUKALDARITZA
IKASTAROA

EKIN emakume taldeak
antolatu duen ikastaroaren
bigarren saioa hasiko da
10:00etan, AEDren egoitza.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Alameda-Do'Soul'N tal-
de madrildarrak (reggae, ska
eta jazz erritmoak) eta *Con-
trastes* eskoriatzarrak arituko
dira Arrasateko Gaztetxean,
22:00etatik aurrera.

■ JAM ARETOA

Nomads, *Tuperguarros* eta
Fist Fucking talde suediar-
rak arituko dira *Bloody Mary* jaian.
Emanaldia 22:00etan hasiko
da. Sarrera, 1.800 pta aurrez.
Bertan, 2.000 pta.

31

igandea

■ ZINEA

Tarzan, 17:00etan eta *Eyes
wide shut*, 19:00etan eta
22:00etan, Alai zine-
man.

2

asteartea

■ ZINEA

Eyes wide shut, 19:00etan
eta 22:00etan, Alai zine-
man.

1

astelehena

■ ZINEA

Tarzan, 17:00etan eta *Eyes
wide shut*, 19:00etan eta
22:00etan, Alai zine-
man.

■ DANTZA IKASTAROA

EKIN emakume taldeak
antolatutako dantza ikastaroa
aurreradoa. 15:00etan AEDren
egoitza eta 16:45ean, Gara-
gartzako auzo etxean.

3

asteazkena

■ HARREMANEN
HITZALDIA

Mondragon Eskola Poli-
teknikoaren areto nagusian
Harreman, Gobernu Kanpo-
ko Erakundeak, hitzaldia
eskainiko du, 19:00etan. Hiz-
lariak Euskal Kooperante Gaz-
teak programan aritu diren
lau gazte izango dira.

■ DOMU SANTU EGUNA

Azaroaren lehenean ospatuko da Domu Santu
eguna. Herriko hilerriak goizean goizeko 09:00etatik
aurrera egongo dira zabalik, hildako senitarteko eta
lagunei omenaldia egin ahal izateko.



■ **LIBURUTEGIAREN OHARRA**

Azaroaren 2tik 6ra bitartean ezingo da liburu-rik, bideorik, edo bestelako dokumenturik etxera eraman liburutegitik. Sistema informatikoa aldatu behar dela eta, egun horietan ezin izango da ezer atera.

■ **PIRAGUISMO IKASTAROA**

Eskimotajea egiten ikasteko eskolak emango dituzte piraguismo ikastaroen barruan. Saioak Bergarako igerilekuan izango dira azaroaren 6tik 14ra bitartean. Izen emateko Arrasateko kiroldegira deitu, 943 77 16 77ra. Ikastaroa 3.500 pta kostako da bazkideentzat eta 4.500 bazkide ez direnentzat.

■ **TAN-TAN IKASTAROA**

Aretxabaletako gazteak tan-tan ikastaroa antolatu du. Azaroan hasi eta Gabonak arte iraungo du. Izen ematea azaroaren 3an bukatuko da. Prezioa: langileek 2.000 pta eta langabetu eta ikasleek, berriz, 1.000 pta.

■ **SKUNK ANANSIE**

Azaroaren lehenean *Skunk Anansi* taldeak Jam aretoan eskaini behar zuen kontzertua Donostiako Anoetako kiroldegian izango da. Dirudienek, uste baino sarrera gehiago saldu da eta antolatzaileek horixe erabaki dute. Dena dela, emanaldiaren ordua mantendu egin da: iluntzeko 21:00etan.

Bestalde, datorren ostiralean, hilak 5, egingo den kontzerturako sarrerak

salgai daude dagoeneko. 2.000 pezetan eros daiteke *No Use For a Name, Snuff, Tilt, Mad Caddies* eta *Consumed* taldeak ikusteko sarrera.

■ **AEK EGUNA**

AEK egunean zozketatu zen bidaiaren zenbaki saritua 19.358 izan zen. Irabazlea ez da agertu. Hori dela eta, datorren astean esango dute zein den zenbaki saritu berria.

■ **PERKUSIO IKASTAROA**

Iñaki Bruñak eskaintzen duen perkusio ikastaroa astelehenero izango da, 18:00etatik 21:00etara. Izen ematea oraindik zabalik dago eta 500 pta kostatzen da.

■ **TALO IKASTAROA**

Ekin emakume taldeak talogintza ikastaroa antolatu du. Ikastaroa azaroaren 6an hasiko da AEDren egoitzan. Izen ematea lehenbailehen egitea komeni da. Azken eguna azaroaren 5ean amatuiko da. Informazio gehiago 943 77 12 28an.

■ **BEHOBIA-DONOSTIA**

Azaroaren 14an egingo da Behobia-Donostia maratoia. Eta dagoeneko zabalik dago izenematea. Horretarako Loramendi Kirolak dendara jo dezakezue azaroaren 5a baino lehen. Izen emateko 1.800 pta ordaindu behar da.



Gazte Sailerako eragilea behar da AEDn

EGUN ERDIRAKO LANPOSTUA

Kontuan hartuko da:

- Euskara maila
- Gazteekin esperientzia izatea
- Ikasketak

Curriculumak azaroaren 10a baino lehen bidali AED elkartera:

AED elkartea

Pablo Uranga, 6 behea • 20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 21 17 • Faxa: 943 79 74 01

astea bi hitzetan

■ Langabezia Amaian

Ados antzerki taldea Amaia Antzokian izan zen larunbatean *Desperrados* lana taularatzen. Langabezia da lan honen funtsa, mende bukaera honetako arazorik larrienetarikoa. Egunerokotasunak erakusten duen errealtatea azaltzen da antzezlanean.

Haria Jose Antonio eta Garbi Losadarena da. Antzezleak, Nagore Aranburu, Ana Elogdi, Koldo Losada, Ana Pimenta eta Anartz Zuazua izan ziren.

Nahiz eta Amaia antzokira jende gehiegirik hurbildu ez izan, antzezlanak harrera ona izan zuen ikusleen artean. (Ikus kultura orria).

■ Elgearen aurka

Eskoriatzako plazan hasi eta Aretxabaletaraino ibilaldia egin zen domekan. Elgeako haize zentralaren aurkakoa izan zen eta 300 bat lagunek parte hartu zuten. Helburua, dagoeneko hasita dauden haize zentrala egiteko lanak geratzea zen.

Deialdia Eskoriatzako Udaleko Ingurugiro batzordeak, Gipuzkoako Mendizale Federazioak, Euskal Herritarrok alderdiak eta beste hainbat mendi elkarte, alderdi politiko eta talde ekologistak egin zuten.

■ Udalari errekurtsioa

San Josepe harrobiko lanak egiten dituen enpresak errekurtsioa jarriko du udaletxean, alkateak hartutako erabaki baten aurka. Halaxe jakinarazi zen asteleheneko Gobernu Batzordearen bileran. Kontua da harrobiko lanak egiteko lur publikoak eskatu zituela enpresa honek. Alkateak, eskaera hau ezeztatu egin zuen eta orain, ezeztapen horren aurka ekingo dio San Josepe harrobiak.

■ Behartsuen pedagogia

Asteazken honetan, pedagogiari buruzko hitzaldi benetan interesgarria izan zen Eskoriatzako Humanitate Fakultatean. Hizlaria,

Ana Maria Araujo "Nita" izan zen. Bere senarra zenak pedagogia aldetik eginiko ekarpenei buruz aritu zen hitzetan, bai ikuspegi pertsonal batetik eta baita ikuspen profesionaletik ere; Ana Maria Araujo ere pedagogo baita. Fakultateko aretoa jendez gainezka izan zen "Nita-ren" hitzak adi-adi entzuten.

Paulo Freire, besteak beste, "Zapalduen Pedagogia" izeneko liburuaren egilea da. Sekulako ospea eta eragina sortu zuen gizon honek nazioartean bere proposamenekin.

50. hamarkadan hasi zen pedagogia metodoak zehazten, nekazari analfabetoen artean alfabetatze kanpainetan lanean ari zela.

Gero, Brasilen izandako diktadurapean, espetxean egon zen eta ondoren, 15 urte deserrian.

Orain bi urte hil zen Sao Paoloko ospitale batean, bihotzekoak emanda.

Oraindik ere bere irakaspenak oso kontuan hartzen dira.



■ Retegi EEBBetan

Jabier Retegi, Mondragon Unibertsitateko errektorea, Estatu Batuetan da. Domekan abiatu zen, MCC eta SPRI, Industriaren Sustapenerako Elkarteko zenbait kiderekin batera.


Retegik astebete egingo du Estatu Batuetan eta aprobetxatu egingo du Mondragon Unibertsitatearentzat eredu izan daitezkeen hainbat unibertsitate bisitatzeko, tartean Massachusettseko eta Marylandeko unibertsitate ospetsuak.

Datorren asteartean itzuliko da Mondragoera.

“ Arrasaten bizi izandako urteak oso garrantzitsuak izan ziren; gehienbat lana eta enpresa hurbiletik ezagutu nituelako. Kooperatiben lan filosofia barrenetik ezagutzeko aukera izan nuen Ikerlanen. Bestetik, Arrasate Telebistan ikasitakoa eta bizi izandako gutzia paregabea izan zen”.

ANNE IGARTIBURU

TU-Lankide
1999ko iraila



GIDA

2



Badator, badator.

GIDA 2000 prestatzen ari gara.

Onintza eta Oihana gaituzue.

Laster zure taberna, denda edo lantegira joango gara.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzagako merkatarien telefono eta helbideak jasoko ditugu

GIDA 2000n.

ARKOren gidan azaldu edo berri gehiago jaso nahi baduzu, deitu ARKOra (943 71 23 91).

GIDA 2000, zure etorkizunean.



ARKO

Bergarako alkatea, Mankomunitateko lehendakari

Joan den asteko asteazkenean, Deba Garaiko Mankomunitatea osatzen duten zortzi udaletako ordezkariak bildu ziren, Zuzendaritza Batzorde berria aukeratzeko. Hiru izendapen egin ziren, aho batez: lehendakaria, lehendakariordea eta diruzaina.

Deba Garaiko lehendakari berria Bergarako alkatea izango da, Victoriano Gallastegi, EAJ-EA koalizioko. Lehendakariordea Arrasateko alkatea, Xabier Zubizarreta, EHkoa. Eta diruzaina Jose Antonio Etxeberria Bergarako zinegotzi eta EAko militantea.

Victoriano Gallastegik dagoeneko azaldu du plan estrategiko bat egiteko asmoa duela, mankomunitatearen nondik norakoak zehazteko.

Hamasei kidek parte hartzen dute mankomunitatearen



Victoriano Gallastegi.

zuzendaritzan: 9 EAJ-EA koaliziokoak; 6 EHkoak eta independente bat. Arrasatek lau ordezkari ditu: Jose Mari Loiti jeltzalea, Jose Mari Urizar "Ametzu" EAkoa, eta Xabier Zubizarreta eta Ino Galparsoro EHkoak.

Joan den asteazkenean batzordeetako buruak aukeratu zituzten.

Mankomunitateko Zuzendaritza

Udala	Ordezkaria	Alderdia
Antzuola	Mireia Unamuno	EH
Aretxabaleta	Anjel Bergaretxe	EH
	Karmelo Azkoitia	EAJ-EA
Arrasate	Jose Mari Loiti	EAJ-EA
	Jose Mari Urizar "Ametzu"	EAJ-EA
	Xabier Zubizarreta	EH
	Ino Galparsoro	EH
Bergara	Victoriano Gallastegi	EAJ-EA
	Jose Antonio Etxeberria	EAJ-EA
	Martin Guridi	EH
Elgeta	Patxi Basauri	EAJ-EA
Eskoriatza	Edorta Zubizarreta	EH
Leintz-Gatzaga	Eugenio Otxoa	EH
Oñati	Angel Iturbe	EAJ-EA
	Ernesto Murgiondo	EAJ-EA
	Mari Asun Villar	EAJ-EA


Estibalitz Etxabek egoera larrian segitzen du

Estibalitz Etxabe arrasatearrak egoera kritikoa segitzen du joan den ostegunean Aretxabaletan izan zuen istripuaren ondorioz. Buruan kolpe handia zuela ospitaleratu zuten. Harrezkero Zainketa Bereziatako Gelan dago. Familiak adierazi duenez, burukoa kontrolatu diote eta lo segitzen du, sedatuta. Beraz, badute itxaropena motiborik.

Ostegun goizeko zazpiak eta laurdenetan izan zen istripua, Estibalitz Etxabe Gasteizera bidean zihoanean, bere Renault Twingoan. Aretxabaletako saihesbidean, Ederlan aurrean zuela, egurrez betetako kamioi luze batek jo zuen, Aretxabaletatik irtetera zihoala.

Suhiltzaileek txatarra artetik atera zutenean konsziente zegoen. Lehendabizi Arrasateko ospitalera ekarri zuten, baina buruan traumatismo handia zuela ikusirik, Gasteizko Santiago ospitalera eraman zuten berehala. Kolperik handiena buruan du, nahiz eta hanka bat ere apurtuta duen.

Estibalizek 30 urte ditu eta Gregorio Etxaberen alaba da. Ikasketaz irakasle da, baina Gasteizko udaletxean egiten du lan, Gizarte Zerbitzuetan. Denboraldi batez Gasteizen bizi izan da, baina orain hilabete erabaki zuen berriz ere bizi izatera Arrasatera etortzea. Goizero-goizero, beraz, Gasteizera egiten zuen, lanera.



Almen inguruko gune hau arriskutsua da.

LEKU ARRISKUTSUA

Hau ez da gune horretan gertatzen den lehen istripua. Aurretik ere istripu dezente gertatu dira, eta batzuk, osteguneko bezala, txarrak. Aretxabaletatik irteten diren ibilgailuek, adibidez, bisibilitate gutxi dute, eta kamioiak oso motel ateratzen dira.

Arrasatetik doazen ibilgailuek, beriz, abiada dezentete hartzen dute aldapan beherra. Martin Garai, Aretxabaletako udaltzainburuak adierazi duenez, "Almen inguruko gune hau arriskutsua da eta zerbait egin beharra dago, istripu gehiago gerta ez dadin".

Eusko Jaurlaritzak 5 milioi pta eman die Deba Garaiko herri aldizkariei

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakitera eman ditu 1999an euskarazko prentsa idatziari emango dizkion diru laguntzak. Diru kopururik handiena *Euskaldunon Egunkari*arentzat izan da: 156 milioi pta. *Argia* astekariak, eta Euskal Herri osoan zabaltzen diren beste aldizkariek ere dirua jasoko dute.

Herri komunikabideei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak ia 36 milioi pta banatu ditu aurten. Orain hamar urte baino %25 gehiago. Izan ere, 1990ean, era honetako diru laguntzak ematen hasi zenean, ia 29 milioi pta banatu zituen.

Deba Garaiko herri aldizkariek aurten 5 milioi pasatxo jasoko dituzte. Gehien *Berrigara* astekariak; bigarren *Arrasate Pressek*, eta hirugarren

Aretxagazeta hamaboskariak. *Arrasate Pressek* iaz baino milioi erdi gehiago jaso du, baina orain hamar urte baino milioi erdi gutxiago. Oñatiko *Kontzejupetik* hilabetekariak, ordea, ez du dirurik jaso, udalarena delako.

Joxe Mari Muxika Arko-ko lehendakariordeak bi puntu azpimarratu zituen diru laguntzen berri izandakoan: euskarazko herri prentsari ez zaiola laguntzen, aitoritzen

zaion garrantziaren arabera. Horrez gain, "ez dut garbi ikusten zein irizpide erabili diren diru laguntzak emateko orduan: aldizkarien tirada den, eragina, zabalkunde geografikoa..., ez dakit".

Era honetako diru laguntzak orain hamar urte hasi zen ematen Eusko Jaurlaritzak, *Arrasate Press* sortu ondoren, hainbat herritan herri aldizkariak sortzen hasi zirenean, gehienak ere euskaraz.

Diru laguntzak Deba Garaian

Aldizkariak	Tirada	PTA	Iaz baino
Aretxagazeta	2.500	374.752	-306.342
Arrasate Press	6.400	2.489.405	+514.172
Berrigara	5.100	2.520.000	+403.394

Giza bazterketaren aurka

Herriko hainbat sindikatu eta talde giza bazterketaren aurkako plataforma eratu nahian ari da herrian. Hori dela eta, joan den asteartean bilera egin zuten Monterronen.

Jende gutxi elkartu zen, baina Monterronen agertu zirenek asmo zehatzak zituzten: pobreziaren aurka orain

dela bi urte Legebiltzarrean aurkeztu zen eskubide sozialaren eskutitza ezagutzera eman eta politikoei Legebiltzarrean hori eztabaidatzen ez duten bitartean, presioa egitea.

Arrasateko giza bazterketaren berri eman nahi dute eta horrez gain, azaroan gutun horren alde presioa

egiteko antolatu den ibilaldirako herria girotu.

Ibilaldia azaroaren 13an hasiko da Tuteran eta Bilbon amaitu, 27an. Egun horretan, gainera, kale agerraldia egingo da.

Arrasatek ere pasatuko omen da plataforma: azaroaren 20an eta 21ean izango da hori.

2.000ko billete faltsuak?

Bi mila pezetako billete arra-roak dabilta egunotan Mondragoen.

Betikoak baino handixagoak dira. Ikutzean ere desberdinak direla somatzen da eta kolorea arrosa baino, laranja kolorekoa dute. Horrez gain, billetearen numerazioa birritan agertzen da. Bata, betiko lekuan, eta bestea, eskuma aldean, beheko partean.

Kontua da, jendea ari dela esaten billete horiek faltsuak direla. Baina, ez da egia.

Kutxan jakinarazi digutenez, billete mota horiek benetakoak dira. Duten arazo bakarra da, zaharrak direla. Lehenagoko modelokoak, hain zuzen ere.

Beraz, lasai ibili, erabili daitezke eta bi milako horiek.

Erasoa erreibindikatuta

Gara egunkariak astelehenean adierazi zuenez, ezezagun batek bere gain hartu du orain bi aste bete Arrasateko postetxeak izan zuen eraso. Deitu zuen pertsonak PPren jarra inmobilitista eta Euskal Herriaren eskubideak ez onartzea salatu nahi izan zuten ekintza horrekin.

Prozesu berriaren alde agertu omen zen, eta horrekin batera, alderdi politikoen konpromisoa eskatu zuen.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpatratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

Garraio publikoa hobetzeko

Deba Garaiko Mankomunitateak garraio publikoari buruzko ikerketa bat egingo du datoren martxorako. Orain dauden gabeziak eta beharrak aztertuko dira, Deba Garaiko garraio zerbitzua hobetzeko asmoz.

Hiru lagun arituko dira honetan lanean. Bi oñatiarrak dira, Xabier Albizu, bata eta Celia Albeniz bestea. Hirugarren laguna, mondragoetarra da, Gregorio Gallego, hain zuzen ere. Hiru hauek, Deba Garaiko udaletara joango dira eskaerak jasotzeko. Herri bakoitzean dauden eskolen, ospitalen, unibertsitatearen eta



Pesak ematen duen zerbitzuak hutsuneak ditu.

lantegien beharrak ere ikusiko dituzte eta baita herrietako giza taldeenak ere, erretiratuena, adibidez. Ondoren, emaitzak eskuan izanda, dauden beharrak betetzeko pro-

posamenak edo alternatibak aurkeztuko dituzte. Orain Pesa enpresa da Deba Bailarako garraio zerbitzuaz arduratzen dena. Halaxe egingo du datoren 2012. urtea arte. Kontua

da Pesak betetzen duen zerbitzu honetan zenbait gabezia igartzen direla. Hortxe daude Oñati eta Antzuola, adibidez. Herri hauetara heltzeko zerbitzu gutxi samar egoteaz gain, handik kanpora irteteko ere arazoak izaten dituzte herri-tarrek. Leintz-Gatzagaren egoera okerragoa da. Ez dago autobus bat ere herri horretara heltzeko, eta noski, ezta Gatzagatik kanpora irteteko ere. Arrasatera etorritz, gero, Zumarragara joateko, adibidez, autobus bakarra dago egunean eta hantxe dago tren geltokirik gertuena.

Panteoiak lekuz aldatzeko muga jarri du udalak

Udalak muga zehatza ezarri du Aldaiko hilerriko panteoiak San Kristobalekora aldatzeko: datorren urteko urtarrilaren bukaera edo, asko jota, otsailaren hasiera.

1995etik hona, Aldain zehazten 186 panteoietatik 135 aldatu dira. Orain udala harremanetan dabil lau panteorien jabeekin, baina geratzen diren

beste 47ek ez dute lekuz aldatzeko asmorik erakutsi.

Udalak zerrenda bat egin du lekuz aldatu barik dauden panteoi hauekin. Modu honetan, garai batean emandako kontzesioa berriro ere udalaren esku geratuko dira eta. Erabaki honen aurrean alegazioak ere egin litezke, noski.

Kontzesioak berreskura-

tzeko prozesu hau abendurako bukatuta egotea espero du udalak. Horren ostean, hala ere, hilabeteko epea emango die oraindik ere panteoia aldatu nahi dutenei.

Beraz, adi Aldain panteoien bat duzuenok: abenduan hasi eta urtarrila edo otsaila arte behintzat, epea zabalik izango duzue eta.



Parques
y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tñoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



PERRETXIKOAK BARRA-BARRA

Igande goizean Arrasateko Ikastolako 300 bat neska-mutiko Seberon izan ziren aurreko egunetan batutako perretxikoak harro erakusten. Denetarik jaso zuten: piñatelak, amanitak, gibeldurdinak... Sorta onenaren saria "Perretxiko Gabe" taldeak lortu zuen eta Amanita bilduma onenaren saria eta aurkezpen onenarena, "Gorosti" taldeak. Entoloma Lividum motako sortarik onena "Amaita Piperdun" taldeak hartu zuen.

MUGARRIZ MUGARRI

AEDren gonbitari kaso eginez, Udala eta Meatzerreka inguruetan dauden karobiak, meategiak eta elurzuloak ikusten aritu ziren 30 bat lagun igandean. Ibilaldi hau egiteko Gotzon Arzelus bergararrak idatzitako liburu batean oinarritu ziren antolatzaileak.



Honetan ere MAPFRE bereiztu egiten da gainerako aseguru enpresetatik:

HERIOTZA ETA LAGUNTZA ASEGURUA



MAPFRE

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22
Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04

San Felipe Apóstol

Etekinak lortzeko asmorik ez du eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantzza eta Lan Saileko Gizarte Segurantzza Zuzendaritzan izena emandako elkarte da.



Gaur egungo Zuzendaritza Batzordearen zenbait kide: Jose Luis Unzueta (diruzaina), Jose Juan Iria, Kontxi Bedia, Jose Ignacio Alonso, Alberto Ojanguren (maiorala), Jose Ignacio Elorza (idazkaria), Angel Atxa, Jesus Mari Arizmendiarieta (lehendakaria) eta Valentin Ojanguren.

Eratze eguna: 1898.eko apirilaren 13a.

Bazkide kopurua: 11.673

Sarrerako ordain sariak

40 urte baino gutxiagokoak . . . Sarrera dohainik	
41-50	12.000 pta.
46-50	20.000 pta.
51-55	30.000 pta.
56-60	45.000 pta.
61-6	65.000 pta.
66-70	90.000 pta.
70 urtetik gorakoak	125.000 pta.

Urteroko ordain sariak

Titularrak	2.200 pta.
Ezkontideak	1.430 pta.
Onuradunak	925 pta.

Eskaintako zerbitzuak

Hildako bazkidearen familiari gastu hauetan lagunduko diogu:

- Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan egin beharreko lekualdaketak.
- Hilkutxa.
- Herrian zehar eskelak jartzea.
- Hildakoak jazteko lanak.
- Auzitegian egin beharrekoak. Medikuziurtagiria.
- Elizkizunak sortutako gastuak.
- 50.000 pezetako diru laguntza hildako bakoitzagatik.
- Heriotza EAetik edo Nafarroatik kanpo gertatzean, 600.000 pezetarainoko gastuak ordainduko dira, beti ere, ondorengo baldintzak betetzen badira.
 - Egindako gastuen frogagiriak ekartzea behar-beharrezkoa izango da eta frogagiri hauek faktura ofizialen orijinalak izatea eskatuko da.
 - Erabilitako zerbitzuak (hilkutxa...) San Felipe Apostol Elkarteak eskaintzen dituenen antzekoak izan beharko dira.

Arduradunak: Alberto Ojanguren, Kontxi Bedia

Ginuzkoa Etorbidea, 39, 1 C • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 82

IZENAK

Ramon Cardella

26 urteko bilbotarra da Mondragon Hoteleko zuzendari berria, hirugarrena. Hotelen Kudeaketan espezializatu ondoren, Bilboko Sirimiri, Lekeitioko Emperatriz eta Santiagoko Puerta del Camino hotelak zuzendu ditu.



BARAZKIAK ERREGE


Barazkiekin otordu goxoak eta osoak nola prestatu ikasten aritu da argazkiko taldetxo hau. Ekin emakume taldearen eskutik, horixe egingo dute datozen lau asteburuetan ere. Modu horretan, arraina edo okela erabili barik ere denetarik presta daitekeela ikasiko dute.

Gu, behintzat, prest egongo ginateke gertatzen dutena probatzeko, ezta?



EUSKARAZ BIZI

Lagun talde hau Mondragoetik, Aretxabaletatik eta Bergararik Sarara joan zen igandean. AEK eguna zela eta, autobus bat antolatu zen hemendik eta talde polita bildu zen. Giro majoa sortu zen joandakoen artean; irakasleak eta ikasleak batera euskal giroan.



KARIBEKO DANTZETAN GARAILE

Joan den ostiralean Elgoibarko Azkena dantza-lekuan Karibeko dantzen lehiaketa izan zen eta bi mondragoetar izan ziren irabazle: Abel Agudo eta Isabel Trenado, Natalio Maiztegiren ikasleak biak. Kubarako bidaia jaso zuten sari.

Horrez gain, hirugarren tokian ere mondragoetarrak izan ziren: Manolo Kruz eta Amaia Fernandez. Dirudienez, Mondragoen sekulako "saltsa-giroa" dugu!

Zorionak denoi eta ondo pasa Karibeko lur haietan.

Ohitura zaharrak, bizirik

Santu Guztien egunaren ospakizunaren bezperan gauden honetan, dagoeneko ia dena prest dago ospakizunerako. San Kristobaleko eta Aldaiko hilerriak txukun-txukun daude, bisitak jasotzeko gertu. Jendeak ere aspaldi erosi ditu senide eta lagunendako loreak.

Baina gaur egungo Domu Santu eguna eta gure arbasoek ospatzen zutena zeharo desberdinak dira. Besteak beste, garai berrien eraginez, egun horren ospakizuna orain askoz ere alaiagoa izateaz gain, hutsalagoa ere bihurtu da, kanpora begira egiten den ospakizuna.



Aurten San Kristobal hilerria bisitatuko dute mondragoetar gehienek.

Santu guztien eguna ospatzen da azaroaren lehen egunean. Urte liturgikoa orduantxe amaitzen da. Hori dela eta, ordua arte egutegian agertu ez diren santu guztien eguna ospatzen da.

Domu Santu izena ere hartzen du jai egun honek. Jatorria, *Domine Saindu* izenean du (Santu Jauna). Bizkaieraz Domuru Santuru esaten zaio eta guk, laburtu, eta Domu Santu geratu da. Deunoro izena ere hortik dator.

EGUN BAKARREAN BI

Jatorriz, azaroaren Iean Santu Guztien Eguna ospatzen zen. Hurrengo egunean, berriz, hildako guztien edo arimen eguna izaten zen. Santu ez ziren hildakoei ere egun berezi bat behar zutela eta jarri zen horrela. Baina bigarren egun hori ez zen jai eguna. Ondorioz, jende askok zailtasunak izaten zituen hildakoen aldeko ekintzetara joateko; orduan, dolu eguna izaten zen hildakoena. Otoitzerako eguna zen eta hildakoei esker ona azal-

tzekoa. Beraz, senide edo lagun hilak bisitatu ahal izateko, jendea bezperan (jai egunean) hasi zen hilobietara, mezataria eta abarretara joaten.

Poliki-poliki ohitura zabalduz joan zen, azkenean azaroaren 2ko ospakizunak ia desagertu ziren arte.

BELTZETIK KOLOREETARA

Eguna aldatzeaz gain, bestelako ohitura ugari ere aldatu da bi ospakizun hauen baitan, urteek aurrera egin ahal. Kolorea, adibidez. Lehen,

esan bezala, dolu eguna izaten zen; jendea goitik behera beltzez jantzen zen eta mezak tremendista samarrak izaten ziren orduan.

Orain, aldiz, bi egunak bat direnean, kolorea da nagusi. Loreen ondorioz, batetik. Bestetik, janzkeran beltza baino gehiago bestelako koloreak erabiltzen direlako.

Bestalde, hilerrira joateko ohitura hori ere berri samarra dela esan dezakegu. Antzina, eta Euskal Herrian horrelaxe izan da urte askoan, etxe ondo-



Azalako argazkia Iturbide egoitzan dagoen hormirudi honetatik ateratakoa da. Hormirudiaren egilea Antton Iriondo frantziskotarra da. 1985ean margotu zuen. Euskal Herriko santu guztiak zerura bidean irudikatu zituen fraide frantziskotarrak.

Domu Santu egunean

an lurperatzen ziren senideak. Ondoren, joan den mendean, eliza barruan ehortzen hasi ziren eta eliza txiki geratu zenean, elizaren inguruan. Aldiz, Frantziatik etorritako higienearen aldeko ideiak sartu zirenean, kanposantuak egiten hasi ziren.

Horrelaxe egin zen Aldaiko hilerria Mondragoen, joan den mendean. Kasu honetan, Bergarako Mintegia, Peñaflores kontea eta inguruko jendea aritu zen horretan.

LOREEN GARRANTZIA

Hilabete edo hamabost egun lehenago enkargatzen ditu jendeak loreak. Lore zentroak izaten dira gehienetan. Baita lore naturalak ere. Garai batean krisantemoak bezala, orain krabelinak daude boladan, adibidez. Hala ere, lore artifizialak gero eta gehiago erosten ditu jendeak.

Urrutiko lekuetatik ekaritzen dira loreak: Holandatik,

Txipionatik eta Kolonbiatik, adibidez. Iazko larrosak Ekuadorretik ekarri ziren. Gutxi izan aren, hemengo loreak ere saltzen dira.

Loreen salneurria majo igotzen da egun honetarako. Baina ez loredenden eraginez, askok uste bezala; izan ere, loredendek ere prezio igoera izaten dute egun horretan. Adibide bat ematearren, krabelinak, 1.200 pezetatik 2.000 pezetaraino igo daitezke.

Jendeak, batezbeste, 5.000 eta 10.000 pezeta artean gastatzen du egun honetan.

Loreez gain, egun honetan badago ohikoa den goxo bat ere: Santuen hezurak. Mazapanez eginak dira, eta barruan hainbat zaporetako betegarria izan ohi dute. Herriko gozodenda gehienetan izaten dira, jakina, guztietan ez esatearren. ■

Ubane Madera



Loreak dira egun honetan nagusi.

PARROKOAREN IRITZIA

— Egun honen bilakaera nondik norakoa izan da?

— Gizatasunetik sortzen den barne indar bat dugu gure baitan. Hildakoek indar handia eragiten dute pertsona zein familiarengan, berezkoa balitz bezala hildakoak urtean behin oroitzea. Esan beharra dago, gainera, egun hau Europako herrialde gehienetan gordetzen dela, baita estatu laikoetan ere. Beste gauza askorekin gertatzen den moduan, bizi izateko erak ekintza sozial bilakatuz joan dira. Honen eraginez, sinismena galtzen doan eran, ekintza erlijioso, sozial eta sentimental bihurtzen da. Ondorioz, erritmoak hutsa goak dira eta ospakizunak sekulako handikeriaz inguratzen dira. Zenbat eta sakontasun gutxiago, makilaje gehiago behar du. Badakizu, berez goapoa denak ez du prestakuntzarik behar izaten, besteek aldiz...

— Zer iruditzen zaizu orain dagoen ospatzeko modua?

— Izugarriko pasada iruditzen zait loreen kontu hori, adibidez. Hori bai, lehenago ohiturak ere gehiegizko ziren, meza larregi, erresponso ugari... Badirudi jendeak uste duela zenbat eta gehiago egin, orduan eta gehiago salbatzen duela, eta hori ez da horrela.

Ez zaie horrenbesteko garrantzia eman behar ez lorei, ezta mezei eta bestelakoei ere. Bada umekeriak alde batera lagatzeko garaia.

— Zelan beharko litzateke zure ustez?

— Santu Guztien Eguna, pozik eta ilusioz bizitzeko eguna izan behar luke, gure lagun eta senide maiteak salbu daudelako. Gainera, geu ere egunen batean horren parte izango gara.

Hildakoen jaiari dagokionez, pertsonak gogoratzeko eguna da, eurek egindako ahalegina eskertu eta bere egoera patxadaz eta ilusioz ikustea da egokiena. Egundorretan, hildakoak bizirik baleude moduan. Are gehiago, heriotzari ez zaio beldurrik izan behar.



Loreei buruzko informazioa lortzeko "Oihana" loradendara jo dugu, baina badakigu herriko loradenda gehienetan jokabide bera izaten dutela.

Eskolara joatea baino gehiago

Bigarren urtez jarraian, Arrasateko Lantegi Eskolak inguruko ondarea berreskuratzen jardungo du. Oraingo honetan Antzuolako Olan etxea berrizteko egitasmoa dute esku artean.

Abenduaren 15ean hasi eta, bi urtez, hantxe arituko dira eskolako ikasleak Olan etxeari berriro jatorrizko itxura emateko lanean.

Asko jota, 52 lagun arituko dira lanean. Lau talde izango dira: 14 igeltsero, beste 14 arutz, 12 elektrikari eta 12 tapizgile.

Antzuolan hasi aurretik, baina, eskolak hartuko dituzte. Sei hilabetez, aipatutako lau lanbideetatik norberak nahi duena ikasiko du eskolan. Ondoren, ikasitakoa praktikan jarriko dute Olan etxean.

OLARAN BIRMOLDATU

Goitik behera berriztu behar dute Olan etxea. Jausita dauzkan hiru solairuak berriro eraikiko dituzte. Leihoak, hormak eta enparaueak berrizteko asmoa ere badago eta, noski, baita etxeak duen egurrezko egitura guztia konpontzekoa ere.

Konponketetarako proiektua Deba Garaiko Mankomunitateak egin du. Gero, Madrilera bidali zen, INEMera, han onespena jasotzeko. Izan ere, Lantegi Eskola guztiak INEMen barruan daude. Eskolak proiektuak egin eta aurkeztu egiten ditu eta Madril onartu edo atzera botatzen dituzte.

Aurten, onartu egin dute Antzuolako proiektua eta



Oñatiko Bidaurreta Dorrea (Olakua) lanak egin aurretik.



Dorre bera Lantegi Eskolako langileak pasatu ostean.

216.287.000 pezetako aurrekontua eman da egiteko. INEMek diru horren %75 ematen du; gainerakoa, Mankomunitateak.

TITULUAK ESKURATU

Baina ez hori bakarrik. Lantegi Eskolak Bigarren Mailako Eskola Graduatua eta Lanbide Heziketako lehen

maila ateratzeko aukera ere eskaintzen du. Nagusien Heziketa Iraunkorraren laguntzarekin, goizero irakasleak izango dira beharrezko ikasgaiak partitzeko.

PARTE HARTZEKO

Lantegi Eskolako ikasle izateko INEMen izena eman besterik ez dago. Beharrezkoa da

16-24 urte edukitzea, langabea izatea eta, jakina, INEMen izena emanda egotea. INEMek berak egingo du aukeraketa eta, ondoren, Lantegi Eskolan azterketa bat egingo zaio pertsona bakoitzari, dagokion maila ezartzeko. Elkarriketa bat ere egingo da, bakoitzaren zaletasunak jakiteko.

Interesatuak lehenbailehen eman beharko dute izena INEMen. Datorren hilean aterako dira aukeraturakoen zerrendak.

ESPERIENTZIA ONA

Aurreko urteetan esperientzia ona izan omen dute Lantegi Eskolan. Oñatiko Bidaurreta Dorrea (Olakua) eta Galartza Dorrea berreskuratzen dituzte ikasleak eta emaitza ikusgarriak lortu. Azaroaren 9an inauguratuko dituzte bi eraikuntza hauek.

Are gehiago, eskolan jardun duten ikasle gehienek lana lortu dute. Rosa Mari Ezkurra Eskolako zuzendariaren esanetan, lan ugari dago inguruotan eta Lantegi Eskolan lanbide bat ikasteko aukera dago, betiko izango den lanbidea. Eta eskolan edonor onartzen dute; lanerako gogoia izatea da eskatzen den bakarra.

DEI BEREZIA

Eskolako zuzendariak jendea animatu nahi du Lantegi Eskolara joateko. Berak dioten moduan, "aurreko aldiaren egon direnek lana dute eta jende gehiago etorri gero ere, izango dute. Gainera, gu prest gaude edonor hartzeko, eskatzen dugun bakarra da lanerako gogoia, gogoia eta gogoia".

AZK Taldea berregituratu egin da

Aldaketak izan dira AZK Taldean, hiru bazkide sortzaileak banatu egin dira eta. Jabe-kideen artean enpresa bideratzeko ikuspegi desberdinak nagusitu dira. Daniel Miguelezek adierazi duenez, "Iñaki Azkoagak enpresaren atalak indartu nahi zituen, enpresa atomizatzeraino ia. Jose Angelek eta nik, berriz, beste ikuspegi bat genuen: bezero leial asko ditugu eta horiekin nahi dugu lan egin, publizitate agenzia indartuz eta gure bezeroei soluzio globalak eskainiz".

Hori dela eta, banatu egin dira. Iñaki Azkoaga Bilboko bulegoarekin geratu da, eta bere proiektua bultzatuko du. AZK Interactive-n lan egiten zuten bi lagunak ere joan egin dira, beren kontura lan egiteko.

Beste bi jabe-kideek, aldiz, Daniel Miguelez eta Jose



Daniel Miguelez, Juan Jose Brizuela eta Jose Angel Iturbe.

Angel Iturbe, AZK Taldean dihardute. Hauek, gainera, enpresako beste bi kide —Edorta Azaola eta Juan Jose Brizuela— hartu dituzte jabe-kide gisa. Talde berriak erosi

egin dizkio Iñaki Azkoagari zituen akzioak eta "AZK Taldea" marka erabiltzeko eskubidearekin geratu da.

Aldaketa hauek irailaren 15etik daude indarrean. Publi-

zitate taldeko kideek esan dutenez, bereizketa modu onean egin da, bat ere zera txarrik barik.

AZK Taldea izenarekin geratu den enpresak publizitatea eta produktu berriak landuko ditu, lehen bezala. Bi bulego ditu, bat Aretxabale-tako industrialdean eta bestea Bilbon, erosi berria. Bere bezeroen artean JMA, Aspes, Fagor, Zahor, Bilbobus, Ulma eta Eusko Jaurlaritza daude, besteak beste. Gaur egun zortzi lagun ari dira lanean talde honetan.

AZK Taldea orain hama-bi urte sortu zen, Arrasaten. Lehen bi urteak Iñaki Azkoagaren Asubalde baserriaren ganbaran egin zituzten. Ondoren San Juan etxeetan eta, azkenik, Aretxabale-tako industrialdean.




Oihana
LORADENDA - APAINKETA

**Eskerrik beroenak
eskainitako
konfiantzagatik**

Arrasate Pasealekua, 8
ARRASATE
Tel.: 943 77 14 56



Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

- Etengabeko zerbitzua
- Tramite guztien bideratzea
- Lore koroak - eskelak

Amilaga, 39 ▪ 20570 BERGARA
Tel.: 943 761 299 ▪ Faxe: 943 761 299
e-mail.: harrespil@elea.net



Harrespil

Hilerri eta Hileta Zerbitzuak

- Hilerrien gestio osoa eta mantenimendua
- Aldikako lanak hilerrietan

Peñaflorida, 1 B -1 ▪ 20004 DONOSTIA
Tel.: 943 440 198 ▪ Faxe: 943 429 529
e-mail.: harrespil@elea.net



Minieskubaloian nola jokatu

Eskubaloia ezaguna izango duzue ziurrenik. Baina aldatu duzue inoiz joku hau, leku txikiago edo jende gutxiagorekin jokatu ahal izateko? Horixe egin dute Arrasate Kirol Proiektuan (AKP) eta aste honetan minieskubaloian nola jokatzeko den kontatzea erabaki dugu.

✌ JOKATZEKO ARAUAK

Ateko eremuan eta kanpoan joka daiteke, baina atezain bat eta pistako lau jokalaria ari daitezke batera. Gauzak horrela, eskola arteko partidetan 7-10 jokalarik osatzen dituzte taldeak eta guztiek sar ditzazke te golak.

Hamar minutuko bi aldi jokatzeko dira.

✌ JOKATZEKO ELEMENTUAK

Baloia ohikoa izan arren, adin bakoitzean tamaina batakateko langeta beherago jartzen da jeneralean baino.

✌ KONTUAN IZAN:

- Hiru urrats baino gehiago ezin da egin boterik gabe.



SFX U taldeak partida bat irabazi eta bestea galdu egin du.



SFX A taldeak bitik bi partida irabazi ditu.

- Kasu horretan bost segunduz baino ezin da eduki baloia esku artean.

- Aurkaria arean sartzean jokoz kanpo badago, atezainak epailearen agindua itxan.

ron gabe atera dezake baloia.

- Alboko sakeak zuzenean ateraino jaurti daitezke.
- Gorputzeko edozein atalekin uki daiteke baloia, belau edo oinarekin izan ezik.
- Aurkariari baloia kentzeko ezin da jokalaria ukitu.
- Aurkaria geldiarazteko, bere aurrean jarri, baina ez erabili besorik, ezta hankarik ere.

✌ DEBEKATURIK DAGOENA:

- Pistako jokalaria ezin dira ateko arean sartu. Atezaina ezin da area horretatik atera.
- Ezin zaio atezainari baloia pasa.
- Ezin zaio aurkariari heldu eta bultza egin.
- Ezin da defendatzaile baten aurka egin, baloirik ez badu.
- Ezin da area barruan bueltaka dabilen baloia jaso, ez eta hankaz jo edo baloia iri bi eskuz bote eragin.
- Ezin da defentsa mistoa erabili, denbora luzean baloia izan; eta ezin zaio baloia dutenei eraso egiteari eta gola sartzeari uko egin.

Taldez talde

MINIESKUBALOI TXAPELKETA

NESKAK

	Jokaera	Partaidetza	Puntuak	Guztira
San Viator B	6	6	6	18
Merced	6	3,5	4	13,5
SFX A	6	0,5	4	10,5
San Viator A	3	2,5	1	6,5
SFX U	3	2,5	1	6,5

✌ **Aurrekirolean** 15 talde ari dira florballean eta azaroaren 6an jokatuko dira finalak. **Multikirolean** bost neska talde ari dira eta Erguinen beste talde bat hasiko da hurrengo astetikurrera. Mutilek hurrengo jardunaldian amaituko dute lehen aldia.

✌ **Asteburuan** ez da partidarik izango, jai delako.

MUTILAK

	Jokaera	Partaidetza	Puntuak	Guztira
A taldea				
Merced	6	5	6	17
SFX U	6	4	4	14
San Viator B	6	4	4	14
Erguin	6	0,5	2	8,5


B taldea

San Viator C	6	4,5	6	16,5
Aramaio	6	2,5	1	6,5
SFX B	3	0,5	2	5,5

C taldea

SFX C	6	4	4	14
San Viator A	3	2	1	6
SFX A	3	0	3	6

ERRUGBIA Hasiera eskasa




Patxi Gorosabelen mutilek ez zuten ondo hasi euskal liga. Lehen partidaren Gernikako taldea izan zuten aurrez aurre. Gernikarrak iaz mailaz jaitsi ziren eta Gara-gartzan egin zuten lehen agerpena euskal ligan. Horregatik, partida zaila zen etxekoentzat. Eta, lehen zatian markagailuan aurreratu egin ziren arren, bigarreanean gernikarrak nagusitu ziren. 5 entsegu, 4 transformaketa eta 2 zigor kolperiesker, 5 eta 41 irabazi zuten bizkaitarrek. Aste honetan Zarautzen aurka arituko dira, Asti errugbi zelaian.

Beteranoak bestalde, Galiziara joango dira, A Coruña-ra zehazki. Opor osteko lehen partida izango da. 29 lagun joango dira, gizon eta emakumeak oraingoan. Ondo pasa, bada!

Haur mailakoek azaroaren 12an hasiko dute denboraldia. Joan den asteburuan Ordizian izan ziren Atletico de San Sebastian, Ordizia, Hernani eta Zarautzen arteko kontzentrazioa jokatzeko. Ordiziari izan ezik, beste hiru taldeei irabazi egin zieten.

ESKUBALOIA Nahi, baina ezin



Elgoibarko taldea izan zen irabazle Iturripen igandean. Bernardo Balerdiren taldea saiatu zen, baina elgoibartarren defentsa gogorra izan zen oso, eta gol asko gelditu zituen. Arrasate-Almen taldean atezaina izan zen jokalaririk onena. Igor Egañari 25 gol sartu zizkioten arren, geldialdi bikainak ere egin zituen. Azken emaitza 13 eta 25koa izan zen, elgoibartarren alde.


FUTBOLA Galdu barik



Galdu barik segitzen du Mondrak. Antza denez, aurkitu du maila egokia. Iaz ez zuten asmatzen eta aurrean, berriz, ez daki oraingoz behintzat, galtzea zeren. Tolosaldearen aurka jokatu zuen Juanina Garairen hamaiakoak azkenengo, eta 0 eta 0 berdindu zuen.

banakako defentsa eta kontraeraso gogorre esker, lehen minutuetan aurreratu ziren Kencikoak. Tartean berriz ere galdu egin zuten aldea, baina Lander Errastik joko aldatu egin zuen eta aurretik jarri ziren berriz ere arrasatearrak. Amaierara 58-75 iritsi ziren.

XAKEA Bigarrena berdindu



San Andres xake taldeak bina berdindu zuen Donostian, Fortuna taldearen aurka. Tornayk, Hernandok, Prietok eta Ruizek berdinketa egin zuten. Aste honetan, Hondarribiko Marlaskaren aurka neurtuko dira. San Andresko laukotea Hernandok, Prietok, Ruizek eta Arriaranek osatuko dute.

SASKIBALOIA Kanpoan ere bai



Partida zaila izan arren, garaipena lortu zuten Kenci-Arrasatekoek Gasteizen. Aurrera de Vitoriaren aurka 8 jokalaritatu ziren bakarrik, lesioak eta bestelako konpromisoak tarteko. Egoera txarra zen arren,

Emaitzak

ERRUGBIA

- Gazteak: Arrasate 0- Hernani 51

FUTBOLA

- Ohorezko gazteak: Mariño 3 - Mondra 0
- 2. gazteak: Arrasate 6 - Eibartarrak 3
- Ohorezko haurrak: Arrasate 4- Bergara 1
- 2. haurrak: Arrasate 5- Antzuola 0
- Ohorezko infantil maila: Sporting Herrera 4- Arrasate 0
- Errejonial maila, neskek: Almen 0- Mondra 2

ESKUBALOIA

- Gazteak: Aloña Mendi 30 - Arrasate 26

SASKIBALOIA

- Juniorrak: S. Tomas Lizeoa 61- KArrasate 46
- Haur maila: Kenci-Arrasate 46- Irurok 26
- Haur maila, neskek: Kenci-Arrasate 29 - Oñati 22

PILOTA

- Gatzagako txapelketa
- Aurrebenjaminak: Fernandez-Bolinaga 18- Akixu-Zubillaga 10
- Benjaminak: Elortza-Arregi 18- Antoñano-Alonso 17
- Alebinak: Rezano-Gebara 18- Gorka-Otxoa 10
- Infantilak: Aspe-Zubiate 18- Zuazua-Agirre 16

XAKEA

- Errejonial maila : Fortuna 2- Arrasate 2

Jokatzeak

ERRUGBIA

- Seniorrak: Durango edo Sestao
- jubenilak: jai
- haurrak: jai

FUTBOLA

- 2. errejoniala: Zumaiako - Mondra
- Ohorezko gazteak: Mondra - Hondarribia
- 2. gazteak: Ilintxa - Arrasate
- Ohorezko haurrak: Eibar - Arrasate
- 2. haurrak: Aurrera de Ondarroa - Arrasate
- Ohorezko infantilak: Arrasate - Santo Tomas Lizeoa
- Errejonial maila, neskek: Mondra - Mutriku

ESKUBALOIA

- Seniorrak: Urnieta-Arrasate-Almen
- Gazteak: Arrasate-Urola, igandea: 11:30

SASKIBALOIA

- Kenci-Arrasate/Patria Hispana, larunbata: 16:00
- Juniorrak: Arrasate-Loiola Elkano kirolak, larunbata: 16:00, Musakola
- Haur maila: /Kenci-Arrasate
- Haur maila, neskek: Eskoriatza-Almen/Kenci-Arrasate.

XAKEA

- San Andres-Marlaska (Hondarribia), larunbata: 16:00

Kadete mailako nesken saskibaloit taldea

Lehen urtea dute ligan eta dagoeneko badakite zer den derbi bat irabaztea. Horixe egin zuten joan den larunba-

tean Oñatiren aurka: irabazi! Denboraldiko bigarren neurketa zen eta etxean jokatzeko zuten lehenengoa. Azken

emaitza 29 eta 22koa izan zen, Alvaro Bastidak eta Txema Sanchezek zuzentzen duen taldearentzat. Aste honetan Esko-

riatza-Almen taldearen aurka arituko dira.

Beste derbi bat beraz kadete mailako talde honentzat.



Izaskun Mercader
13 urte
oinarria



Aitziber Joriano
14 urte
oinarria



Erika Revalo
13 urte
oinarria



Naiara Bellido
14 urte
hegalekoa



Maialen Gurrutxaga
13 urte
hegalekoa



Yanela Vitoria
14 urte
hegalekoa



Ane Esperesate
14 urte
euskarria



Rebeke del Hoyo
14 urte
euskarria



Leire Carrera
14 urte
euskarria



Lorea Kortabarria
15 urte
euskarria



Ainhoa Zabala
13 urte
euskarria



Taida Albariño
14 urte
euskarria




Alvaro Bastia
entrenatzailea



Txema Sanchez
entrenatzailea



Olaia Mondragon
zelai ordezkarria



Mikel Briñas
talde ordezkarria

JOSEBA UGALDE (INGURUGIRO BATZORDEKO LEHENDAKARIA)

“Gizartea inplikatu na

Ingurugiro batzordea berria da Arrasateko Udalean. Aurreko agintealdian alderdi politiko bati eman zion alkateak ingurugiroaren ardura. Orain, batzorde bat eratu da. Lehendakaria Ezker Batuko zinegotzia, Joseba Ugalde da. Hiru hilabete eman ditu ingurugiroari buruzko txosten bat prestatzen, batzordean aurkeztu eta adostasuna lortu ondoren udalbatzarrean aurkezteko.

Batzorde eta txosten horri buruz berba egiteko deitu genion. Eta adostu bezala, txosten eta guzti etorri zenera, bere asmoak azaltzera.

— Zein da Ingurugiro batzordearen lana?

— Lehenik eta behin, batzordeak oraindik ez duela bilerarik egin argitu nahi dut. Hiru hilabete eman ditut txosten bat prestatzen eta datorren astean bilera egingo dugu,

txostena aurkezteko.

Urtebete eta erdiz udal ordezkari bategi izan zuten ingurugiroaren ardura, baina ezer ere ez dela egin ikusi dugu. Horregatik, hutsetik hastea erabaki nuen.

— Eta zein izan da zure lana?

— Arrasateko egoera zein den jakin behar dugu eta egoera horren adierazleak zeintzuk diren zehaztu. Orain arte hainbat adierazle neurtu da, baina batzorde bakoitzak berea neurtu du. Nire helburua denak batzea da eta Arrasateren egoeraren argazki orokor bat ateratzea. Arazoa zehaztu ostean, kutsadura zerk eragiten duen jakin behar dugu eta gero erremedioa jarri.

— Zer jaso duzu “Gogoetak: Arrasate ingurugiroko kalitatezko eredu batez: eutsigarritasunaren aldeko apustua” izeneko txostenean?

— Lehenik eta behin Aalborgh eskutitza, Lisboako ekintza plana eta Agenda 21 agiria onartu behar ditugu. Azken batean, jendeak eredu bat finkatu behar du, bere erakunde eta taldeetatik sortuta. Aalborgh eskutitzak dio garapenak iraunkorra izan behar duela. Txostenean, gainera, alderdi politiko guztien asmoak ere

jaso ditut. Lanean hasteko, kontzeptuan ados jarri beharra dugu. Guztiok parte hartzeko moduko kanpaina egingo genuke eta jendeari parte hartzeko aukera eman. Gizartea ordezkatu

duen batzorde bat eratu

nahi nuke:

u d a l

batzordea,

teknikaria,

administraria,

aholkularia eta

herriko 52 talde

de t a k o ordezkariak.



“Arazoa zehaztu ostean, kutsadura hori zerk eragiten duen jakin behar dugu eta gero erremedioa jarri”

nahi dugu ingurugiroan

— **Zergatik horrenbeste jende?**

— Ingurugiroa arlo guztietatik landu behar dugu. Merkatariek, enpresek, eskolek... guztiek parte hartu behar dute. Guk ere, udalak, lan ekologikoa egin behar dugu, erabiltzen diren tresnak ekologikoa izanik. Baina horrek inbertsioak eskatzen ditu eta askotan diru asko. Udalak batzordearen proposamenak aztertu eta bideratu behar ditu. Egitasmo integral bat egin behar dugu eta horrek arlo guztiak batu beharko lituzke, baita enplegua ere; hau da, ekono-

mia soziala landu, ingurugiroa buruan dela. Adibidez, "Emauseko traperok" bezalako ekimenak oso egokiak dira.

— **Zein da Arrasateren lehentasuna?**

— Erreken kutsadura, Deba eta Aramaioko erreken arazoa konpontzea. Enpresek janari hondarrak xehetu eta errekaratzen dituzte, baina ez dakigu zenbatek egiten duen hori. Bestalde, teknologia berriak ezarri daitezkeen lekuetan erabili egin beharko lirake eta mediorik ez duten enpresa txikiei ahal den neu-

rrian lagundu egin beharko genieke udaletik. Baina horrez gain, jendea kontzientziatu behar dugu.

— **Zarataren aurka zer egin daiteke?**

— Autoek eragiten dute zaratarik handiena eta beharrezko litzateke oinezkoen lehentasuna ematea eta autoei oztopoak jartzea, autoen erabilera gutxitu arte. Garraio publikoa bultzatuko dugu. Herri barruko autobusa ere laster jarriko da.

— **Zaborrak biltzeak ere arazoak eragin ditu. Zein litza-**

teke irtenbidea zure ustez?

— Kamioiek sarriago pasa behar duten edo edukiontzi gehiago jarri behar den jakiteko, azterketa bat egin beharko da. Arrasaten astean zehar asteburuetan baino jende gehiago bizi da eta egun horietan zabor gehiago batzen da. Aztertu egin behar da. Edukiontzien kasuan ere, plastikoa eta tetrabrikak jasotzeko gain, aerosorgailuak jasotzekoak ere jarri nahi ditugu, baina horretarako tokia egin behar da eta nolako herria nahi dugun erabaki beharko dugu, guztion artean. ■

RIP CURL
TOWN & COUNTRY
AIRWALK
libero
VANS
 Since 1966
Loramendi kirolak
SALOMON
 freedom action sports
trango
Columbia
 Sportwear Company®
H. Waves
LOREAK mendian
KONGO BONGO
 EQUIPO DE LOPONDO
 廣東省體育學院

e-mail-a: loramen@teleline.es

Idazkuntza ikastaroa antolatu du AEDk datorren hikerako

Arrasateko Udal Liburutegiak "Hiru ibilaldi ipuinean barrena" izeneko ikastaroa antolatu du Euskal Idazleen Elkartearen laguntzarekin. Irakaslea Jon Alonso idazlea izango da, eta talde lanean oinarritutako metodologia aktiboa segituko du ikastaroa emateko.

HIRU ZAPATU

Hiru larunbatetan emango du ikastaroa: azaroaren 6an, 13an eta 20an, goizeko 10:30etik 13:30era. Teoria landuz hasiko du lehenengo saioa Jon Alonsok. Ipuinari buruzko definizioak eta ipuinen ezaugarririk garrantzitsuenak hartuko dituzte hiz-



Jon Alonso.

pide lehenik, eta ipuinen atalak ere bereztuko dituzte.

Azaroaren 13an, berriz, ipuinean hasierak eta bukaerak duten pisua landuko da: atal horiek izan beharreko ezaugarriak eta hasiera eta bukaera motak aztertuko dira horretarako.

Ikastaroa bukatzeko, bigai hartuko dira giltzarri azken zapatuan: batetik, ipuinetan efektu jakin bat lortzeko erabil daitezkeen trikimailuak; bestetik, berriz, kalkatutako ipuinen eredu batzuk jorratuko dira.

Izena emateko epea azaroaren 3a arte dago zabalik, eta prezioa 3.000ptakoa izango da. Plazak mugatuak izango dira.

Literatura dastatzen

Teresa Duran i Armengolek "Literatura Dastatzen" izenburuarekin hitzaldia emango du Arrasaten, arazoaren 11n. Monterrongo kultura etxean izango da hitzaldia, arratsaldeko 19:00etan.

Teresa Duranek berrogeita hamar urte ditu, eta diseinatzaile grafikoa eta Pedagogian lizentziaduna da. Irakaskuntza, animazio, irriti eta itzulpengintza arloan egin du lan, besteak beste. Horretaz gain, argialetxeentzat aholkularitza lanak ere egin ditu, eta erakusketa tematikoen diseinua ikuskatzen ere ibilia da. Kritikoa ere bada, haur literaturan batez ere, eta ilustrazioak ere aztertu izan ditu. Horretaz gain, estatuko eta nazioarteko hainbat sariketatant epaimahaikide ere izana da behin baino gehiagotan.

Eleberri eta ipuinen bidez zenbait sari ere irabazi ditu Teresa Duranek, eta ipuin eta haur literaturari buruzko saikera ere argitaratu du.

Arrasateko Margo Taldearen lanak ikusgai

Urriaren 29tik azaroaren 7ra Arrasateko Margo Taldearen margolanak izango dira ikusgai Harresi aretoan. 20 margolariek jarriko dituzte jendaurrean lanak. Tamainaren arabera, bakoitzak artelan bat edo bi erakutsi ahal izango ditu. Guztiak olio estiloa erabiliz egindakoak izango dira, nahiz eta bakoitzak nahi duen gaiaren inguruko margolana erakutsi.

1994. urtean sortu zen Arrasateko Margo Taldea, eta gaur egun asteazkeneko elkartzen da, Luis Lascurain bergararra irakasle dutela. Sortu zenetik, gainera, urtero antolatu izan dituzte taldeko erakusketak Arrasate Margo Taldeko margolariek. Dena dela, taldeko hainbat kidek bakarrik erakusketak ere egin



Arrasateko Margo Taldearen lanak izango dira ikusgai.

dituzte: Felix Aialak, Luis Jabier Arrietak, Manolo Quedok, Rakel Arenazak eta Kontxita Zarraoak, esate baterako.

ORDUTEGIA

Arrasateko Margo Taldeak egindako artelanak ikusi nahi

dituenak jakin beza lane-gunetan arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte izango dela zabalik Harresi aretoa. Larunbat eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara goizez eta 18:00etatik 20:00etara arratsaldez.

Argazki erakusketa Monterronen

Gazteak eta 2000. urtea argazki lehiaketara aurkeztu ziren argazki guztiekin erakusketa dago Monterrongo kultura etxean.

Erakusketa lanegunetan arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Larunbat eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

KOLDO LOSADA (ADOS ANTZERKI TALDEA)

“Antzerkia oso garestia da”

Duela lau urte sortu zuten Ados antzerki taldea Koldo eta Garbiñe Losada anai-arrebek. *Robinson Crusoe*, *Lamiak* eta *Desperrados* antzezlanak taularatu dituzte orduz gozotik, eta orain “Manolito Gafotas” izeneko ari dira prestatzen. Azken hori Donostiako Victoria Eugenia estreinatuko dute, azaroaren 19an. Guk larunbatean Arrasaten ikusi genituen, *Desperrados* lanarekin.

— Zeintzuk osatzen duzue Ados antzerki taldea?

— Nire arreba Garbiñe eta nik osatzen dugu Ados taldea. Dena dela, muntaketa bakoitzerako beharrezko ditugun antzezleak eta teknikariak kontratatzen ditugu gero.

— Gustura gelditu zineten Arrasaten *Desperrados* antzezlanak izan zuen harrerarekin?

— Bai, oso ongi funtzionatu zuen eta pozik gelditu ginen. Oro har, bai Euskal Herrian eta baita atzerrian ere, harrera ona izan du ikuskizun horrek. Publikoari dagokionez ere, nahikoa jende elkartu zen Amaia antzokian.

— Aurrenengo aldiz etorri zarete Arrasatera?

— Ez. Arrasaten gure ikuskizun guztiak eskaini ditugu. *Robinson Crusoe*arekin, gainera, bi urtez jarraian izan ginen. Arrasatera gustura joaten gara.

— Zuen obra guztietatik zein da arrakasta handiena izan duena?

— Beharbada *Desperrados*. Antzezlan horrekin asko irten dugu atzerrira ere. Portugalen, Bartzelonan... izan gara. Euskal Herrian baino gehiago



aritu gara *Desperrados*-ekin atzerrian. Euskal Herria txiki geratzen da antzerkirako, berrogei bat antzoki baino ez dago eta. Hori dela eta, antzezlanetarako beti egiten ditugu euskarazko eta gaztelaniazko bertsoak; hiriburuetan jende gehiago joaten da gaztelaniazko emanaldietara, baina herri txikietan euskarazkoetara gehiago.

— Zer da zuen lanbidetik gehien gustatzen zaizuen?

— Sormenerako aukera handia uzten du eta, aldi berean, librea da.

— Antzerkia gainbehera doa zure ustez?

— Ez. Antzerki emanaldietara joaten den jende kopurua muntaketaren araberakoa izaten da. Dena dela, Euskal Herrian sekula ez da izan antzerkira joateko ohitura handirik. Badago beste arazo bat ere horren atzean: antzerkia oso garestia dela.

aste gazte

■ LANA

- Etxebarriko Udalak, Kultura, Gazte eta Kirol alorreko teknikaria behar da. Epea: azaroak 2.
- Gipuzkoako Foru Aldundirako, kanpaina jakinetan laguntzeko erdi mailako teknikaria behar da. Epea: azaroak 8.
- Añorbeko liburutegirako arduradun bat behar dute. Epea: azaroak 10.
- Kanpo Harremanetarako Teknikari Aditua behar da Bruselan lan egiteko. Epea: azaroak 29.

■ IKASTAROAK

- 3. adinekoaren Psikopatologiari buruzko ikastaroa antolatuko du ICTEK. Ikastaroa azaroaren 2an hasiko da.
- Leintz Zeramika Eskolak ikastaroa antolatuko du. Irakaslea: Javier Mercader. Argibideak: Gazte Bulegoan.

■ LEHIAKETAK

- Irungo Zine eta Bideo Gazte lehiaketa. 18-35 urte arteko gazteei zuzendua, lanek 1997ko uztailaren laren ondoren eginak izan beharko dute. Epea: azaroak 10.
- Donostiako Udaleko Emakume Sailaren eskutik, Komiki Ez Sexisten lehiaketa. 16 urtetik gorakoei zuzendua, txuri-beltzean edo koloretan, 2tik 4 orrialdera bitarteko luzerakoak eta formatu bertikalean eginak. Epea: azaroak 26.
- Euskal esakera barrien lehiaketa antolatuko du Bermeoko Gazte Informazio Zerbitzuak. Egunero kalean erabiltzen diren euskal esakerak saritu nahi dira. Epea: azaroak 30.
- Bilbao Pop Rock lehiaketa antolatuko da aurten ere. Edozein taldek har dezake parte bi musika modalitateetan: pop-rock edo metal. Lanak aurkezteko epea: abenduak 31.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Euskal Herria txiki geratzen da antzerkirako”

ATB

Programazioa

OSTIRALA 29

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
Bixente Pagoaga
sukaldariaren plater bat.
- 13:45** Ekilan. Alberto Gorritibe-
reak aurkezturik
(errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
Eguneko albisteak,
Maidar Osak aurkezturik.
- 21:30** Astebete. Maidar Osak
astean izandako
albisterik garrantzitsu-
nak errepasatuko ditu.
- 22:00** Gatza ete Berakatza
(errepika).
- 22:15** Soinuz Blai. Azken
orduko bideo klipak.
Miren Gonzalezek
aurkeztuta.

LARUNBATA 30

- 13:30** Jolasplast, Hamaika
Magazin, Aurrez Aurre,
Ekilan, Soinuz Blai,
Astebete.

IGANDEA 31

- 13:30** Jolasplast, Hamaika
Magazin, Aurrez Aurre,
Ekilan, Soinuz Blai,
Astebete.

ASTEARTEA 2:

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
Eulali Mazkianek
prestatutako platera.
- 13:45** Astebete (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.

- 21:30** Hamaika Magazin.
Astrologia, sexualitatea,
osasuna... Arantzazu
Lagunillak eta Ubane
Maderak aurkezturik.
- 22:00** Gatza eta Berakatza
(errepika).

ASTEAZKENA 3

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
Eulali Mazkianek
prestatutako platera.
- 13:45** Hamaika Magazin

(errepika).

- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Aurrez Aurre. Edurne
Mujikak Chieko Hata eta
Jon Goikolea elkarrizketa-
tuko ditu.
- 22:00** Gatza eta Berakatza
(errepika).

Gatza eta Berakatza



Datozen bi asteetan **Eulali Mazkian** sukaldaria izango dugu *Gatza eta Berakatza* saioan. Bederatzi egunean zehar, beste horrenbeste plater gozo prestatuko dizkigu Matikua jatetxeko sukaldariak.

Datorren astean

NOIZ	PLATERA
Astearte, 2	Marisko txikitua.
Asteazkena, 3	Bildotsa.
Osteguna, 4	Bakailaoa.
Ostirala, 5	Arroz flana.

OSTEGUNA 4

- 13:30** Albiste aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
Eulali Mazkianek
prestatutako platera.
- 13:45** Aurrez Aurre (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Musiklasik. Iñaki
Olaizolak aurkeztutako
programa. Saio honetan,
Arrasaten egin zen *El
Casero* zartzueta eta
Alfredo Krauss gogoratu-
ko ditugu.
- 22:00** Gatza eta Berakatza
(errepika).
- 22:15** Soinuz Blai. Aste
honetan Edu Abasolak
emango digu musikan
gertatu diren azken
nobedadeen berri.

OSTIRALA 5

- 13:30** Albiste Aurrerapena.
- 13:35** Gatza eta Berakatza.
Eulali Mazkianek
prestatutako platera.
- 13:45** Musiklasik (errepika).
- 20:00-20:30-21:00** Berriak.
- 21:30** Astebete. Asteko
albisterik inportanteenak,
Maidar Osak aurkeztuta.
- 22:00** Gatza eta Berakatza.
(errepika).
- 22:15** Soinuz Blai. Edu Abasolo.

Saionara, Arrasate

Aurrez Aurre asteazkenean, 21:30etan

Datorren astean Sortaldearen oihartzunak hurbilduko dizkigu Edurne Mujikak *Aurrez Aurre* saiora. Izan ere, Jon Goikolea eta Chieko Hata senar-emazteak elkarriketatuko ditu.

Jonek eta Chiekok Japonian ezagutu zuten elkar. Patxi Goikolearen semeak zortzi urte eta erdi egin zituen han, gobernuarentzat lanean, Hirugarren Mundura laguntzera zihoazen borondatezkoei oinarritzko gaztelania irakasten. Chieko ezagutu eta sekulako bidaiak egin zituzten herrialde haietan zehar, Euskal Herrira etortzea erabaki zuten arte.

Denboraldi bat igaro ostean, 1994an, GoiHata enpresa sortu zuten. Goikolea-Hata deiturretatik hartu

zuten izena. Bi lan nagusi egiten dituzte: itzulpenak eta Holandako makina erremintako enpresa handi batekin egiten dutena.

Japonierazko itzulpenak egiten hasi ziren. Gaur egun, ostera, ingelesez, gaztelaniaz eta euskaraz ere lan egiten dute. Interpretaritzana ere egiten dute, bisita, kongresu eta bileretan, esate baterako. Hasieran San Juan etxeetan zeukaten bulegoa. Orain, berriz, San Andresen ireki dute berria.

Zer kontatu asko dute Jonek eta Chiekok. Biek ere oso ondo ezagutzen dituzte Australiatik hasi eta Sortalde Urrutirainoko lurraldeak. Eta entzuizue Chiekori zein ondo egiten duen euskaraz. Ez zarete aspertuko.



Jon Goikolea eta Chieko Hata.

**Ondo ezagutzen dituzte
Australiatik hasi eta Sortalde
Urrutirainoko lurraldeak**

ATBk hamar urte

Hasierako logotipoa



Izena erabaki ondoren, Arrasate Telebista (ATB), irudia erabaki behar zen. Sortzaileek telebistaren nortasuna zehazteko eta indartzeko tresna gisa ulertu zuten logotipoa. Nola egin, ordea?

Bi aukera zeuden: herritarren artean lehiaketa bat antolatu edo profesional bati eman. Bigarrena aukeratu zen: JJK enpresako Kike Gomez de Segurari deitu eta, baietz, egingo zuela.

Egun batean Jose Felix Diaz de Tuesta eta Joxe Aranzabal JJKra joan eta Kikerekin elkartu ziren. Hura ordu-rako ezaguna zen, berak egina baitziren ETBren txoritxo eta Euskadi Irratiko logoa, besteak beste. Ordubetez, proiektuaz hitz egin eta nolako telebista nahi zuten jakinarazi zioten: profesionala, garai hartako zenbait telebista pirataren eredutik urrun, herrian txertatua, etab.

EZAUGARRIAK

Hilabete baten ondoren, logotipoa egina zegoen. Nabarmenen ATB siglak agertzen ziren. Triangelu batek egiten zuen A letra, barruan zuen dragoitxoari esker. Triange-

luak Udalatx mendia irudikatzen zuen, dragoiak Arrasateko elezaharreko dragoia zekar-kigun gogora, baina ez zen dragoi beldurgarria, jostaria eta maitagarria baizik. Gainean, zertzelada urdin bat zuen, zerua eta itxaropena adierazteko.

ATB siglen azpian Arrasate Telebista zegoen idatzita, Arrasate Pressekin bere goiburuan erabiltzen zuten antzeko letratipoarekin egina, aldizkariarekiko lotura garbi ager zedin.

Logotipo beraren bi diseinu aurkeztu zituen egileak. Arduradunek goikoa aukeratu zuten. Bestea lehenaren garapena zen eta aurrerago, urte batzuk pasatu ondoren, erabil zitekeela erabaki zuten.

Logotipoaren egileak bi izan ziren: Mario Gaztelu-Iturri bilbotar gaztea eta Kike Gomez de Segura. Logotipoa bera egiteaz gain, honen garapena ere proposatu zuten: txar-teletan, eskutitzetan, elastikoetan...

Elastikoak ere atera ziren, ATBren logotipoarekin. Aurrean logotipoa zuten idatzita letra zuri-urdinetan; atzean, berriz, dragoia, koloretan.

Hiru urtez horixe izan zen Arrasate Telebistaren irudia.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Madalena kaleko 13an, hiru gela, sukalde-jantokia, egongela, komuna, trastergia eta ganbara duen etxea saltzen da. Tel.: 630 39 36 21. 21:00-21:45.

• Aretxabaletan etxebizitza salgai. Tel.: 639 26 62 78.

• Etxebizitza salgai Zigorrolan. Hiru logela, sukalde, komuna, egongela, berogailua eta gas naturala. Tel.: 943 77 04 61.

• Zarautzen, erdialdean, guztiz jantzitako etxebizitza salgai: sukalde, bi logela, egongela, bainua eta ganbara. Tel.: 943 79 55 28 eta 656 71 57 72.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai ikasleentzat. Tel.: 943 79 39 02. Gauetan deitu.

• San Bizente kalean 60 m²ko etxabea alokatzen da, berogailu eta guzti. Erabilera askorako baliagarria. Tel.: 943 79 18 95.

• Arrasateko erdialdean etxebizitza alokagai. Lau gela, bi bainu, egongela, sukalde eta igogailua. Tel.: 609 40 03 96.

4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza behar dut alokatzeko, Arrasaten. Tel.: 606 06 96 75.

• Ikasle batek gela bat alokatuko luke etxebizitza batean, Arrasaten. Tel.: 943 79 47 85.

• Gela bat alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 79 03 99.

5. Etxeak osatzeko

• Bi neska behar ditugu Leioan, etxebizitza osatzeko. Tel.: 945 45 52 67.

• Mutil bat behar dugu etxebizitza osatzeko Makatzenan. Tel.: 943 77 12 42. Iban. Lan orduetan.

• Neska bat behar da Arrasaten, etxebizitza osatzeko. Tel.: 600 64 61 38. 20:00-22:00.

GARAJEAK

10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Altamiran dagoen 59 m²ko lokala salgai. Tel.: 943 79 66 62.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 42 65.

14. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen taberna alokatu edo eskuz aldatzeko prest gaudete. Tel.: 617 37 42 37.

• Gimnasio bat errentan jartzen da. Tel.: 943 77 07 06.

• Garaje itxia alokatzen da, Erguñin auzoan. Tel.: 943 79 13 97.

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m²ko eta bi solairuko tokia alokagai. Tel.: 943 79 42 65.

LANA

17. Eskaintza

• Emakumea prest pertsona nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Tel.: 600 60 05 31.

• Neska euskalduna prest denda saltzaile moduan lan egiteko. Esperientziaduna. Tel.: 943 79 37 68.

• Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsalde. Interesatuok deitu 17:00etatik aurrera. Tel.: 943 75 22 74. Itziar.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Pertsona nagusiak zaintzen ditut gauean. Tel.: 610 01 06 10. Belen.

• Esperientziadun emakumea etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 11 46. Larunbat eta igandeetan.

• Mutila prest publizitate edo gutunen banaketa egiteko. Tel.: 943 79 11 46 eta 943 79 98 83.

• Neska gaztea prest asteburuetan lan egiteko. Tel.: 943 79 42 54.

• Emakumea prest atariak, bulego, etabarreko garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 77 06 74.

• Ospital laguntzaile tituludun neska prest arratsalde lan egiteko, pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 943 79 81 25. Gauetan.

• Erizain kualifikatuak gaixoak zaintzeko prest, etxean, ospitalean edo zerbitzu berezietan. Tel.: 609 55 54 66. Gauez.

• Neska, umeak zaintzeko prest. Eskola partikularrek ere emango lituzke, ingelesa bereziki. Arrasaten eta Eskoriatzan. Tel.: 606 75 59 13.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska prest orduka garbiketa lanak egiteko. Tel.: 943 71 53 74.

18. Eskaerak

• Neska bat behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Autoa behar da. Tel.: 943 71 50 92.

• Esperientzia duen ile apaintzailea behar da, Deba Garaian lan egiteko. Deitu 607 42 84 79 telefonora.

• Neska bat behar da sukaldean lan egiteko. Titulu edo esperientziaduna. Kontratoa egiteko aukera. Tel.: 943 79 11 15.

• Pertsona bat behar da Web orriak programatzen dakiena. Lan zehatz bat egiteko. Tel.: 629 41 59 47.

• Pertsona bat behar da Aramaion, pertsona nagusiekin gauez laguntzeko. Tel.: 616 99 86 09.

• Bordatuak egiten esperientzia duen pertsona bat behar da. Arrasate inguruko. Tel.: 943 79 10 43.

• Esperientzia duen jostuna behar da, Arrasate inguruko. Tel.: 943 79 10 43.

• Neska bat behar da arratsalde denda batean lan egiteko. Euskaraz egitea ezinbestekoa da. Interesatuok bidali zuen datuak 259 posta kutxatilara.

• Pertsona bat behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 77 17 97 eta 639 45 85 08.

• Pertsona bat behar da sukaldean lana egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

• Abokatua behar da, 35 urtetik beherakoa. Esperientzia ez da beharrezkoa. Curriculum Arrasateko 54 postakutxatilara bidali.

• Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 10 22.

• Zerbitzaria behar da asteburuetarako. Tel.: 945 44 50 86.

• Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta umeak eskolara eramateko. Beharrezkoa autoa edukitzea. Tel.: 943 77 01 73 eta 616 92 49 88. 20:00etik aurrera deitu.

• Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 77 15 71.

• Prestakuntzarako kontsultore bat behar da, komunikazio teknikan

eta giza harremanetan trebatua eta esperientziaduna. Interesatuak 656 41 08 16 telefonora dei dezakete.

• Dendaria behar da. Tel.: 943 79 12 31

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Esperientziadun neskak OHoko eskola partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 77 17 20 eta 943 79 25 09. Ana.

• Gitarra elektrikoko eskola partikularrak ematen ditut, hutsetik hasita, maila guztiak. Tel.: 666 69 28 69. Jose Luis.

• OHoko eta DBHko eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 40 57. Ane.

• Ingeleseko eta OHoko eskola partikularrak emango nituzke. Euskaraz eta gaztelaniaz. Tel.: 943 79 94 98.

• Eskola partikularrak emango nituzke, maila guztietan, goi batxilergoa barne. Tel.: 943 79 48 09. Itziar.

• Ingeleseko eskolak ematen ditu. Talde mugatuak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70.

21. Eskaerak

• Latinezko eskolak hartzeko irakasle bat behar dut. Tel.: 943 79 81 73. 20:00etatik aurrera.

• DBHko matematikako eskolak hartuko nituzke, 3. mailan. Euskaraz. Tel.: 943 79 17 51. Itsaso.

MOTORRA

23. Saldu

• Yamaha XT 350 salgai. Txuri-gorria. BI-BJ. 11.200 Km. Kutxa, bi burubabes, giltzarrapoarekin. Prezioa: 375.000 pta. Tel.: 607 44 38 10.

• Yamaha XJ 600. Egoera onean eta ITVa pasatuta. Merkea, bi maleta opari. Tel.: 943 79 26 35. Eguedri eta gauean.

• Motor berri-berria salgai. Honda NTV 650, 11.000 kilometro, estra eta guzti. Tel.: 943 79 20 40. 20:30etik aurrera.

• Automobila salgai. Seat Ibiza 1992koa, egoera onean. Tel.: 943 79 23 58.

• Autoa salgai, Renault 1.9. RT Diesel. 18 hilabetea eta hainbat osagarrarekin. Oso egoera onean. Tel.: 609 46 44 12.

• Peugeot motor berri-berria salgai. Zennith 49 c.c., granatea. Prezioa: 160.000 pta. Tel.: 943 77 11 68.

DENETARIK

26. Saldu

• Kanadiar kanpin denda salgai, abanze eta guzti. Oso merke. Tel.: 943 79 23 69. Gaeuz.

• Auto gainean eramateko kutxa salgai. Tel.: 943 79 23 69. Gaeuz

• Fagor markako izozkailu etzana salgai. 300 litro. 20.000 pta. Tel.: 943 79 58 79.

• Logela bat saldu nahi dut. Gere-

ziondo egurra, 1,35eko ohea, armairu handia, bi mesilla eta komoda bat. Berri-berria dago eta itxura klasikoa du. 60.000 pta. Tel.: 943 71 42 19.

• Esku soinua salgai, 96 bajukoa. Egoera onean, oso prezio interesgarrian. Tel.: 943 79 13 18.

• Salomon Evolution eskiak salgai. Egun batean erabilita. 205 neurrikoak. Fijazio eta guzti. Prezio onean. Tel.: 943 79 26 16. 13:00-13:30. Tel.: 943 79 68 31. Urtzi.

• Behin bakarrik erabilitako 39-40 zenbakiko Boreal mendiko botak salgai, handiak ditut eta. Onak, Gore tex. Kranpoekin erabilgarriak. Tel.: 943 79 55 83.

• Chaman piragua salgai. "Compartimento estanco" du, txaleko berezia, pala, "cubrebañera"; autoan eramateko barrak prezioaren barruan. 50.000 pta. Tel.: 943 77 01 74. Felix.

• Baserriko kiwiak salgai, Tel.: 943 79 97 84.

• Labea salgai, 16 litrokoa. Berria, prezintu eta guzti. 10.000 pta. Tel.: 630 22 25 22. Arratsalde. Ehunate.

• Hiztegi enziklopedikoa salgai. Batxiller, LH eta unibertsitateko ikasleentzat egokia. Tel.: 943 77 05 97.

• HIFI musika katea salgai: pletina, sintonizatzaile, disko jogailu, eta hiru bideko bi bafle. Prezioa negoziatzeko. Tel.: 943 77 05 97.

• SWR Twelve Bass Combo Celestine marka duen 100 Wdun amplifikadorea eta Ibañez baxu elektrikoa dagokion kutxatila eta mantenu osagaiekin batera salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94

49. Oskar.

27. Erosi

• Esku soinua erosi nahiko nuke. Pigi ni 100. Tel.: 943 79 53 36, arratsalde.

• Bigarren eskuko soinu txikia erosi nuke. Tel.: 943 77 04 98. Irene, egunez.

29. Eman

• 1,35 m. neurriko koltxoia oparitzen da. Tel.: 943 79 48 02.

31. Galdu

• Irailaren 19an Besaideko monumetoaren ondoan Olimpus MY-1 argazki kamera bat galdu genuen. Ezerjakinez gero, deitu mesedez 943 79 21 50 telefonora.

33. Bestelakoak

• Jar zaitez sasoiaren energia unibertsalaren bidez. Era guztietako gaitasunak, estresa eta beheraldiak barne. Deitu konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.

• Musika talde batek lokala behar du entsaiatzeko. Tel.: 943 79 81 19.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

• Deba Garaiko grafologo batekin harremanetan jarriko ginakete. Tel.: 943 71 25 11.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



I 954. urtekoa da argazki hau, Gasteizko Karitateko Karmeliten komentuan ateratakoa.

Egun hartan Sor Maria Rosa Arregi moja egin zen. Bi urte lehenago sartu zen komentuan.

Handik Zumarragara joan zen eta zenbait urte egin eta

gero, betiko botoak egin zituen. Errioxako Alfaro izan zuen hurrengo bizilekua eta Bermeo, azkena. Orain ere hantxe dago. Zilarrezko ezteiak ospatu ditu dagoeneko. Ume txikien irakaskuntzan aritu izan da urte hauetan.

Esan beharra dago, orain nagusiagoa izateaz gain, Maria Rosak ez dituela jantzi horiek

erabiltzen; besterik barik, kaleko jantzita ibiltzen da.

Moja batek urteurrena betetzean edo izendapen berriak jasotzean, ospakizunak egiten dira. Horixe bera egin zuten argazkiko lagunek egun hartan. Ezkerretik hasita, agertzen direnak: Tomas Etxabe, Muxibar baserrikoa eta haren emaztea, Rosa Arana.

Erdikoa, esan bezala, Sor Maria Rosa Arregi. Ondoan eskuin aldera bere ama, Muxibarko Juana Etxabe. Ondokoa senarra, Angel Arregi "Axeri".

Argazkia eta berriematea:
 Juana Mari Arregi.

Sagardotegia

ITURROIETA

Arriaga auzoa
 Tel.: 945 44 53 85
 ARAMAIO

Danona
 KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

Gozatu udaz urte osoan zehar



 **902 123 456**
NaturGas, Euskadiko gasa



NaturGas



Sociedad de Gas
de Euskadi, s.a.


Grupo EVE



Renault Scenic berria. Aurrerabidea kutsakorra da.

Renault Scenic-ekin ez zen auto bat soilik jaio. Aurrerapen izugarria izan zen autoa ikusteko eta ulertzeko moduan. Eta orain pauso handi bat eman du. Oraingoan, errotik aurreratu da. Renault Scenic berria. Diseinu berritzailea duen autoa da. Bere funtzionaltasunak harrapatu

egingo zaitu. Baita ikusgaitasunak, argitasunak eta erosotasunak ere. Hainbeste aurreratu da, kutsakorra baita.



BALBULA ASKOKO MOTORRAK

4 SRP AIRBAG

ABS

2 EGUZKI SABAI
AUKERAN

MODULARTASUNA

IREKITZEKO LEIHOA



Renault Scenic
Bidean aurrena



MECA

ARRASATE Tel.: 943 71 24 72 • BERGARA Tel.: 943 76 40 68